


MEMORIA



2

0


1

7



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

MEMORIA



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

Agencia Vasca de Protección de Datos - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3. solairua
01008 VITORIA-GASTEIZ
avpd@avpd.eus
www.avpd.eus

MEMORIA

ISSN: 2253-9506

Aldizkakotasuna: urtero

LG: VI 312-2006

[Lan hau Creative Commons da](#)



Aitorpena (by)

Aske zara:

- lan hau kopia, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Bernahasteko - lana egokitzeko
- lan hau merkataritza xedeetarako erabiltzeko

Baldintza hauetan:

- Aitortu - Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera eman ez haien babesaren duzun edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).

Informazio gehiago: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.es>



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

1.	AURKEZPENA	5
2.	KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA.....	7
3.	AHOLKULARITZA EGINKIZUNA.....	9
4.	KONTROL EGINKIZUNA.....	22
5.	EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA	38
6.	PRIBATUTASUNAREN BALIOAREN ETA AGENTZIAREN JARDUEREN ZABALKUNDEA	45
7.	EZAGUTZA TRUKATZEKO ETA PRESTAKUNTZAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA	49
8.	BARNE KUDEAKETA.....	51
	AHOLKULARITZA ETA IKUSKARITZA UNITATEARI BURUZKO ZIFRAK	60
	DATU PERTSONALAK BABESTEKO ERREGISTROAREN ZIFRAK	62
	AURREKONTU EXEKUZIOARI BURUZKO DATUAK.....	76





1. AURKEZPENA

Aurtengo jardueren memoria hau egin eta onartzeko, eta Eusko Jaurlaritzari helarazteko arrazoia da Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko Legearen agindua betetzea; bai eta Bulegoak 2017an burututako jardueren berri ematea ere modu sistematizatuan, euskal herritarrei eta Euskadiko administrazio eta erakunde publikoei; hain zuzen ere, ahalik eta modurik eraginkorrean ziurtatzeko pertsona guztiok baliatu dezakegula, bakoitzaren eskumen esparruan, norberaren pribatutasuna babesteko oinarritzko eskubidea.

2017ko Memorian jaso ditugu Bulegoak, helburu horiek lortzeko, burutu dituen jardura garrantzitsuenak; eta lan guzti hori hainbat ataletan islatuta dago bertan, gaika sailkatuta eta kronologikoki antolatuta, hobeto adierazteko Bulegoko unitate bakoitzak urtean zehar egindako jardura guztien jarraipena. Gainera, hainbat laburpen-koadro estatistiko ere jaso ditugu bertan, jardura-esparru bakoitzean lortutako emaitzak ikusteko.

Aurreko urteko memoriak bezala, 2017ko Memoriak ere ezin ditu aipatu gabe utzi, batetik, 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena; eta, bestetik, egin diren prestaketa-lan guztiak, Erregelamendua behar bezala ezarri ahal izateko, unea heltzen denean. Guzti horregatik, 2017an DBEBk, datu babesari buruz herritarrek eta euskal administrazio publikoek egin dizkioten galderei erantzuten izan duen lan eskergaz gain, ahalegin berezia egin du euskal administrazio eta erakundeak informatzen eta sentsibilizatzen erregelamendu berriak ezarritako betebeharren gainean.

Horrekin lotuta, Bulegoko zenbait kidek hainbat zabalkunde eta prestakuntza jardueratan hartu dute parte, Erregelamendu orokorrak aitortutako eskubide berriak zertan diren azaltzeko herritarrei eta pribatutasunaren balioaren gaineko kontzientzia publikoa hedatzeko. Eta nabarmentzekoa da Bulegoko kideek izan duten parte hartzea euskal administrazio publikoetan datuak babesteko ordezkariaren figura eratzeke egin diren lanetan.

Azkenik, esan nahi dugu aurten ere 2017ko Memoriak jaso duen Bulegoaren lan guztia, bai helburu aholku-emailarekin egindakoa bai kontrol agintaritza den aldetik egindakoa, asmo garrantzitsu batekin egin duela, hau da, benetako oreka lortzea datuak babesteko oinarritzko eskubidea eta horrek adinako begirunea merezi duten beste eskubide batzuk egikaritzean. Gainera, kontuan izan behar da gizarte teknologiko batean gaudela, eta oso zorrotz begiratzen duela eskubide demokratikoak



behar bezala babesten direla. Gainera, arauak aginduta, bere jardura nagusiki modu elektronikoan burutu behar duten administrazio publikoekin jardun behar du elkar eraginean.

Espero dugu 2017ko Memorian irakurleei eman diegun informazioa egokia izatea bakoitzak ikusteko zenbateraino lortu den Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren helburu behinena gauzatzea, hau da: bermatzea, Bulegoaren eskumenen esparruan modu ponderatuan ezartzen dela datu babesari buruzko araudia, benetan gauzatu dadin euskal herritarren pribatutasunerako eskubidea, Euskadiko administrazio publikoekin dituzten harremanetan.

2018ko maiatza

Margarita Uría Etxebarria

Zuzendaria



2. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 14. artikulua xedatutakoren arabera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Kontseilu Aholku-emailea DBEBren zuzendariari aholkua ematen dion kide anitzeko organo bat da, eta 2/2004 legearen 16. artikulua xedatzen du nortzuk osatzen duten: Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza, lurralde historikoak, Euskadiko toki erakundeak eta Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bi, bata informatika esparrukoa eta bestea oinarritzko eskubideen esparrukoa.

2.1. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN KIDEAK DIRA HONAKOAK

2017ko abenduaren 31n honako hauek osatzen zuten Kontseilu Aholku-emailea:

- **Aintzane Urquijo Sagredo andrea.** Lehendakaria. Santurtziko alkatea. Euskadiko toki erakundearen ordezkaria.
- **Montserrat Auzmendi del Solar andrea.** Eusko Legebiltzarreko legelaria.
- **Nieves Martínez de Antóñana Blanco andrea.** Araubide Juridikoaren zuzendaria. Lehendakaritza Saila.
- **Ibon Oñate Zamalloa jauna.** BFaren Modernizaziorako, Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Kabineteko burua eta Koordinazioko Zuzendari Nagusia.
- **Eduardo Jacob Taquet jauna.** Ingeniaritza Telematikoko irakasle titularra. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- **Iñaki Esparza Leibar jauna.** Zuzenbide Prozesaleko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Kontseilu Aholku-emailearen Antolaketako eta Funtzionamenduko Arauen 6.6.b) artikuluan ezarritakoarekin bat, DBEBren idazkari nagusi **Manuel Valín López** jauna da Kontseilu Aholku-emailearen idazkaria.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Kontseilu Aholku-emailearen Antolaketako eta Funtzionamenduko Arauen 7. artikulua 8. zenbakian ezarritakoarekin bat, DBEBren zuzendari **Margarita Uria Etxebarria andreak** Kontseilu Aholku-emailearen saioetan egoten da, hitzarekin, baina borotik gabe.

Kontseilu Aholku-emailearen lehendakari kargua txandakakoa da eta urtero aldatzen da, Kontseilu Aholku-emailearen Antolaketako eta Funtzionamenduko Arauen 4.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.



2.2. KONTSEILUAK EGINDAKO BILERAK

Kontseilu Aholku-emailea 2017ko ekainaren 16an egin zuen ohiko bilera DBEBren egoitzan. Bileretan gai hauetaz hitz egin zuten:

1. Kontseiluaren idazkari berriaren aurkezpena
2. Onartzea behin-behineko langileen lanpostu zerrenda (LZ)
3. 2016ko Memoria
4. 2017ko aurrekontuen informazioa
5. 2017ko lehenengo seihileko jarduerak
6. 2017ko bigarren seihileko jardueren aurreikuspena

2017ko bigarren seihilekoari zegokion ohiko bilera, hasiera batean abenduan egiteko zena, atzeratu egin behar izan zen urtarrilera arte.



3. AHOLKULARITZA EGINKIZUNA

2018ko maiatzaren 25etik aurrera nahitaez ezarri beharreko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduak 95/46/EE Zuzentaraua ordeztu du; eta bere helburu behinena da harmonizatzea datuak babesteko araudia Europar Batasuneko herrialde guztietan, pertsonen, operadore ekonomikoen eta agintari publikoen segurtasun juridikoa indartuz. Gainera, lortu nahi du araudia egokitzea bilakaera teknologikoak eta globalizazioak dakartzan erronka berrietara.

Erregelamendu Orokorrak berrikuntza garrantzitsuak ekarriko ditu, eta, horren ondorioz, euskal administrazioek nahitaez egin beharko dituzte honakoak: egiten dituzten tratamenduak zehaztu eta horiek egiteko lege oinarriak ere bai; berrikusi nola eskuratzen eta erregistratzen duten adostasuna, adostasuna nahitaezko lege oinarria denean datu tratamendurako; aztertu tratamenduen arriskuak eta ea eraginaren ebaluaziorik behar duten; aztertu eta ezarri arrisku horien arabera segurtasun neurriak; segurtasun urraketak jakinarazteko protokoloak ezarri; datuak babesteko ordezkaria izendatu, eta informazio klausulak berrikusi eta langileen prestakuntza bideratu.

Guzti horregatik, 2017an DBEBk, datu babesari buruz herritarrek eta euskal administrazio publikoek egiten dizkieten galderei erantzuten izan duen lan eskergaz gain, ahalegin berezia egin du euskal administrazio eta erakundeak informatzen eta sensibilizatzen erregelamendu berriak ezarritako betebeharren gainean, azken finean, neurri horien asmoa delako lortzea erakundeek konpromiso handiagoa izatea datu pertsonalen babesarekin.

Era berean, azpimarratu behar da hiru kontrol agintaritzen lana; hain zuzen ere, hainbat baliabide egin dituzte tratamenduen arduradunei eta eragileei laguntzeko Erregelamendu Orokorra betetzen. Baliabide guztiak daude eskuragarri hiru agentzien web-guneetan.

Gainera, Europako esparru berriak barruko lege ordenamendua egokitu beharra dakar.

Une honetan Diputatuen Kongresua Datuak Babesteko Lege Organikoaren proiektua izapidetzen ari da, eta, DBEB 2017an zehar gogor aritu da gainontzeko agentziekin batera, lege organikoaren proiektua aurrera ateratzeko lankidetzan. Horrez gain, DBEBk bi agerraldi egin ditu Justizia Ministerioaren Kodegintzarako Batzorde Nagusian, eta bertan aintzat hartu dituzten DBEBk egin dituen araugintza teknikari buruzko eta edukiari buruzko hainbat proposamen.

Azkenik, datozen hilabeteetan heldu beharko diogu Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen eta legea garatzen duen araudiaren erreformari, arau esparru berri honi behar bezala egokitzeko.

3.1. TELEFONO BIDEZKO ARRETA, ZUZENKO ARRETA ETA ARRETA TELEMATIKOA

DBEBk herritarrentzat eta gainontzeko administrazio publikoentzat gertukoa eta eskuragarria den administrazio eredua izan nahi du; eta, horretarako, hainbat



komunikazio-kanal jarri ditu horien denen esku, informazioa edo irizpide juridikoa ala teknologikoa eskatu nahi badute, erabil ditzaten, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea uki dezaketen edozein gairen gainean galdetzeko. 2017an Agentziak 800 aholkularitza eskabide inguru jaso zituen telefono bidezko, zuzeneko arreta eta arreta telematiko bidezko kanalen bitartez. Kontsulta gehienak telefono bidez jaso ziren, bigarren tokian posta elektronikoz jasotakoak daude, eta hirugarren tokian bertatik berataraz zuzenean egindakoak.

Batez ere herritarrak dira kanal anitzeko arreta zerbitzuaren erabiltzaileak (% 59), segidan administrazio publikoak datoz (% 36). Enpresek eta pribatutasunaren esparruko profesionalek erabiltzen dute gutxien (% 5).

Kanal anitzeko sistema erabilita, erabiltzaileak berehala jakin dezake Agentziak zer uste duen, pribatutasuna dela eta, erabiltzaileari interesatzen zaizkion gaien gainean.

Agentziak, kanal anitzeko zerbitzutik eskuratzen duen informazioa, ondorio garrantzitsuak ateratzeko baliatzen du, eta herritarrei zerbitzu hobea emateko erabiltzen du.

Hasteko, adierazi behar dugu datu-lagatzeari edo datu-komunikazioari dela herritarrak gehien kezkatzen dituen datu tratamendua; eta are kezkarriago iruditzen zaie datuak argitaratzea, horrek eragin kaltegarri handia ekar diezakeelako pertsonen pribatutasunari. Horren gainean, gehitu behar da datu-lagatzeari edo datu-komunikazioari ez dutela berariazko erregimenik Erregelamendu Orokorrean, eta gainontzeko datu tratamenduekin parekatzen direla. Beraz, aldaketa hori dela eta, aurrerantzean tratamendu arduradunek aztertu beharko dute ea tratamenduak ondo ezkontzen diren Erregelamendu Orokorrean jasotzen dituen sei lege oinarrietakoren batekin. Kontuan hartzen badugu lege-oinarri horietako batzuk zehatzeko, kontzeptu juridiko zehaztu gabeetara jo behar izan dela, adibidez, “interes publikoaren izenean gauzaturiko misioa”, zentzuzkoa da arduradunek zalantzak izatea eta kontrol agintaritzen irizpidea nahi izatea nolabaiteko segurtasun juridiko bila.

Hain zuzen ere, Erregelamendu Orokorrearen ikuspegi berri horrekin lotuta egon da Agentziari gehien egin dioten eskabidea prestakuntza izan dela, tratamendu arduradunen eta eragileengandik etengabe jaso dugun eskabidea izan baita. Aurrerantzean arduradunek eredu berri bat erabili beharko dute, hau da, kontuak emateko sistema eta proaktibitatea oinarri dituen eredu, tratamenduaren helburuei eta bitartekoei buruzko erabakiak hartzeko. Baina, Erregelamendu Orokorrean ez duenez zehatz esaten nola egon behar den, tratamendu arduradunek eta eragileek zalantza asko dituzte, eta, ondorioz, Agentzian etengabe ari gara prestakuntza eskabideak jasotzen.

Bestalde, tratamendu arduradunek egin dizkiguten galderak alde batera utzi eta herritarrek egindakoak ikusita, argi geratzen da jendeak oso barneratuta duela datuak babesteko oinarritzko eskubidearen funtsa eskubideak egikaritzeko aukeran dagoela. Izan ere, Agentziak kontsulta asko jaso ditu informazio pertsonala eskuratzeko eskubidearen gainean, bai eta laguntza eskabide ugari ere Interneten norbere datuak ezerezteko eta datu horiei aurka egiteko eskubideak behar bezala erabiltzeko (ahaztua izateko eskubidea). Beraz, herritarrek gero eta argiago dute norberari buruzko informazioaren gaineko benetako kontrola guztiz lotuta dagoela eskubideak egikaritu ahal izatearekin.




Azkenik, azpimarratu behar da handitzen ari dela bideo-zaintzako sistemak erabiltzeko joera bai esparru publikoan bai pribatuan, eta legeak babesten ez dituen egoeretan ere bai. Askotan segurtasuneko edo laneko kontroleko helburu legitimoak gainditu egiten dira, eta, horien ordeztan, pribatutasunerako hain kaltegarria den datu tratamendu batek beharko lukeen proportzionaltasunaren printzipioa ere betetzen ez duten helburuekin ordezkutzen dira.

3.2. IRIZPENAK

DBEBk irizpen bidez ebatzen ditu datu babesari buruz jasotzen dituen galdera konplexuak. Agentziak aholkularitza lana eskaintzen du otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 n) artikulua xedatutako aholkularitza eginkizuna betetzeko, eta administrazioei eta pertsona fisiko zein juridikoei eskaintzen die, baina:

- Kontsultaren gaiak 2/2004 legearen 2.1 artikuluko erakundeek edo administrazio publikoek sortu edo kudeatutako fitxategietan jasotako datu pertsonalen tratamenduei buruzkoa izan behar du.
- Planteatutako gaiak zehatza izan behar du, eta horrek esan nahi du gutxienez zalantzaren iturburuaren deskribapena egin beharko dela, eta Bulegoak irizpidea behar bezala eman ahal izateko behar duen informazioa aurkeztu beharko dela.

2017an zehar udalek egin zituzten kontsulta gehienak, eta udalen atzetik foru aldundiek, eta azkenik EAEko administrazio orokorrak. Horiez gain, beste entitate eta erakunde publiko eta herritar batzuek ere jo zuten Agentziara, Agentziaren irizpidea eskatzeko datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearekin lotutako hainbat gaitan.



Jaso ditugun kontsultak direla eta, azpimarratu behar dugu adingabeen irudien tratamenduei buruz eta udal instalazioetan sartzeko datu biometrikoak erabiltzeari buruz egin dizkigutenak.

Horri buruz esan behar dugu Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak —nahitaez ezarri beharrekoa izango da 2018ko maiatzaren 25etik aurrera) ekarri duen berrikuntzetako bat dela datu biometrikoak aurrerantzean datu kategoria berezitzat joko direla; eta, ondorioz, ezin izango direla tratatu (Erregelamendu Orokorreko 9.1 artikulua— artikulua horretako 2. zenbakian zerrendatutako salbuespenen bat ez bada gertatzen. Salbuespen horietako bat da interesdunaren berariazko adostasuna; eta beste bat da tratamendua beharrezkoa izatea funtsezko interes publiko bat dagoelako.



Gainera, Erregelamendu Orokorrak adingabeen babesa indartu nahi du, adingabeak egoera zaurgarriagoan egon ohi direlako, ez direlako hainbeste ohartzen haien datu pertsonalen tratamenduek ekar ditzaketen arriskuez. Horregatik, hizkera argi eta garbian eman behar zaie informazioa, ulergarria izateko. Eta, horrez gain, Erregelamendu Orokorrak dio adostasuna adierazteko gutxieneko adina 16 urte direla, nahiz eta estatu bakoitzak beste adin bat ezar dezakeen, beti ere 13 urtetik beherakoa ez bada. Bukatzeko, Erregelamendu Orokorrak tratamenduen arduradunei agintzen die ahalegina egin behar dutela egiaztatzeke ea adingabeek benetan duten adostasuna emateko adina, edo, bestela, egiaztatzeke ea adingabeek legezko ordezkarien (gurasoak edo tutoreak) baimenik duten adingabe horien datuak tratatu ahal izateko.

3.2.1. Irizpen esanguratsuenak

Irizpenak eskuragarri daude Agentziaren web orrian (www.avpd.eus).

- **Aisialdiko begiraleak kontratatzeke, sexu izaerako delituen ziurtagiria eskatzea (CN17-001)**

Haurrentzako udalekuak kontratatzen dituzten administrazioek enpresa esleipen-hartzaileei eskatu behar dizkiete kontratuari atxikitako begiraleen ziurtagiriak.

- **Kamerak jartzea udal pilotaleku batean (CN17-002)**

Udal pilotaleku batean segurtasun kamerak jartzea segurtasun arrazoirik gabe, ez dator bat proportzionaltasun printzipioarekin.

- **Udal aldizkari batean adingabeen argazkiak argitaratzea (CN17-003)**

Adingabeen irudiak argitaratzeko, nahitaez eduki behar dira adingabeen adostasuna edo guraso edo tutoreena, adingabeek 14 urte baino gutxiago badute.

Adostasuna eskatu beharrik ez da izango, adingabeen irudia hartzen bada gertaera edo jazoera publiko baten gaineko informazioa emateko, eta adingabearen irudia bigarren mailako gisa agertzen bada.

- **Udal instalazioetan sartzeko hatz-marka bidezko sarbide kontrola (CN17-004)**

Udalak galdetu du ea bideragarria den “Udal instalazioetan hatz-marka biometriko bidezko sarbide kontrolen kudeaketa zentralizatua” egitea.

Kontuan hartuta, batetik, hatz-marka datu biometrikoa dela; bigarrenik, datu babesaren arloko araudiaren menpeko datu pertsonala dela, eta, hirugarrenik, Datuak Babesteko Erregelamenduak berariaz jaso duela datu biometrikoaren definizioa, kasuz kasu aztertu beharko dira honakoak: ea dena delako Administrazioak datu babesaren arloko araudiaren arabera tratatzen duen datu biometrikoa, ea DBLOren 4. artikulua



xedatzen duen datuen kalitatearen printzipioa betetzen duen, eta ea datuen titularren adostasun behar den kasu guztietan (DBLOren 6. artikulua).

29. artikuluko Lan Taldeak —Europako Batzordearen datu babesaren arloko organo aholku-emailea da— hainbat irizpenetan aztertu du zein arrisku dakarren datu biometrikoak identifikaziorako erabiltzea datu-base handi zentralizatuetan, kontuan hartuta ondorioak larriak izan daitezkeela ukitutako pertsonentzat. Eta Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena ikusita eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia aintzat hartuta, irizpenetan adierazitako ondorioa da datu babeserako eskubidearekin talka egiten duen edozein interferentzia baimentzeko, legezkoa izateaz gain, beharrezkoa ere izan beharko dela interes publiko garrantzitsuren bat babesteko.

Lan arloari dagokionez, Auzitegi Gorenak uste du Administrazioak datu biometrikoak tratatzea, langile publikoen ordutegi kontrola egiteko, ondo ezkontzen dela datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin. Gorenaren iritziz zilegi delako datu biometrikoak erabiltzea lan ordutegia betetzen dela kontrolatzeko, eta ez dela beharrezkoa langileen alde aurreko adostasunik, DBLOren 6.2 artikulua ezarri behar delako zuzenean.

Lan esparrutik kanpora, ordea, datu biometrikoen titularren adostasuna beharko da. Eta hori ez zen hala izango administrazioak bakar-bakarrik hatz-marka bidezko sarbide sistema gaituko balu.

Ikastetxe bateko ikasle adingabeak jantokian sartzeko moduari buruzko kasu zehatz hau aztertu eta gero, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak adierazi du datuak babesteko eskubidea errespetatzeko, hau da, DBLOren 4. artikulua errespetatu nahi bada, hatz-markaren algoritmoa datuen titularraren esku utzi behar dela, hau da, txartela eta hatz-marka batera erabili behar direla identitatea egiaztatzeko eta sarbidea baimentzeko.

▪ Zerga-datuak lagatzea ikerketa institutu bati (CN17-005)

Zerga-datuak lagatzeko, zerga-araudiak berariazko araubidea du. Hala xedatzen du Esparru Publikoaren Lege Erregimenari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriak.

Zerga arloko foru arauetan ez dago xedatuta zerga-informazioa laga daitekeenik helburu zientifikotarako, bai, ordea, helburu estatistikoetarako, baldin eta Euskal Estatistika Planean jasotako estatistikak badira.

▪ Zinegotziek udal informazioa eskuratzea (CN17-006)

Zinegotzi batek galdetu du ea biztanleen ordezkariak oro har eskubiderik duten jakiteko udal informazio guztia, eta ea udalak hori emateko obligazioa duen. Berezik ari da alkatetza-dekretuez, eta ea badagoen bitarteko funtzionarioen jatorri-zerrenda batzuk eskuratzea eta izendatu zituztenean zerrendetan zein tokitan zeuden jakitea.

Honako lege eta arau hauek eratzen dute udal informazioa eskuratzeko zinegotzien eskubidea: Konstituzioaren 23. artikulua aitortutako gai publikoetan parte hartzeko



eskubideak, Toki-araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 77. eta 22.2 a) artikulua, Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren Erregelamendua (AJA) onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 14., 15. eta 16. artikuluek eta udal bakoitzeko erregelamendu organikoak. Zinegotzien informaziorako eskubidea “haien eginkizuna burutu ahal izatearekin” guztiz lotuta agertzen da, eta estu-estu lotuta dago “gobernu organoak kontrolatzeko eta fiskalizatzeko eginkizunarekin”.

Udal informazioa eskuratu ahal izatea da zinegotziek duten modu bat kontrol eta fiskalizazio eginkizunak burutzeko. Baina, eskubide horrek ez du esan nahi udalak nahitaez eman behar dienik zinegotziei, zinegotziek eskubidea baliatu baino lehen, udaleko administrazio jarduerari buruzko informazio guztia.

Datu pertsonalak babesteari buruzko ikuspegitik begiratuta, Toki-araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak (TAOL) gaitzen du datu pertsonalak dituen informazioa lagatzea zinegotziei, datuen titularren adostasunik gabe; baina, kalitatearen printzipioa ahaztu barik datu pertsonalen tratamenduetan, kontuan hartuta printzipio horrek ponderazio lana egitea eskatzen duela, eta horrek aldi berean dakarrela baloratu beharra ea eskuratu nahi diren datuak proportzionalak diren helburuarekiko. Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoan Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ere ponderazioa aipatzen dute informazio publikoa eskuratzeko eskubidea arautzen dutenean.

Horrez gain, kontuan hartu behar da udal informaziorako eskubidea asebetetzeko, batzuetan nahikoa izango dela informazioa disoziatzea; eta, horrela ez du talka egingo datu pertsonalak babesteko eskubidearekin.

Alkatetza dekretuek administrazio-ebazpen edo akordio izaera badute, AJAren 14. eta 15. artikuluek diotenaren arabera, zinegotziek eskuratu ahal izango dituzte dekretuak. Dekretuek xedapen orokorraren izaera badute, eta zuzenbideko interpretazioa behar badute edo ondorio juridikoak badituzte, udalak dekretuaren publizitate aktiboa egin beharko dute, gardentasunari buruzko araudiarekin bat.

Behin-behinean lanpostuak betetzen ari diren bitarteko funtzionarioen jatorri-zerrendak eskuratzeko eta izendatu zituztenean zerrendetan zein tokitan zeuden jakitea, azken finean administrazio-espeditante batean egon behar den informazioa jakitea da, eta zinegotziek eskubidea dute informazio hori jasotzeko, baldin eta informazioa nahitaezkoa bada zinegotzien kontrol eginkizunerako, baldin eta zinegotziek eskubidea egin badute behar bezala arrazoituta, eta baldin eta eskubidea onesten duen ebazpena edo akordioa badago, AJAren 14. artikulua xedatutakoaren arabera.

▪ **Ikasleen datuak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jasotzea (CN17-007)**

Unibertsitate-ikasketak euskaraz egin dituztelako ikasleak C1 eta C2 titulua egiaztatzen salbuetsita dauden unibertsitateko ikasleen datu pertsonalak jasotzea, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB) datuak lagatzea edo



komunikatzea da. Eta datu lagatzeak DBLOren 11. artikulua ezartzen duen datu-komunikazioaren erregimena bete beharko du.

Baina, DBLOren 21. artikulua dio ez dela ukituen adostasunik beharko datuen komunikazioa administrazio publikoen artean bada, baldin eta eskumen berberak edo esparru material bereko eskumenak egikaritzeko egiten bada komunikazioa.

▪ **.eus domeinuen titular partikularren datuen babesa (CN17-009)**

Ondo ezkontzen dira datuak babesteko araudiarekin puntuEUS Fundazioak Interneteko domeinuen titularren datu pertsonalen tratamendua, bai eta, bestetik, kontaktu teknikorako, administratiborako edo fakturaziorako pertsonen datu pertsonalekin egiten dituen datu tratamenduak ere, eta datuok ICANNi transferitzea ere bai.

Hala ere, datu pertsonal horiek modu irekian eta indiskriminatuan argitaratzea “WHOIS” sisteman ez dator bat helburua murrizteko printzipioarekin, eta arriskutsua izan daiteke ukitutako pertsonen eskubide eta askatasunetarako.

“Datuen babesa, diseinutik abiatuta eta lehenetsita” delako printzipioa ezartzea, adibidez, seudonimizazioa edo ordezkaritza bidezko informazioa erabiliz, eta helburuaren printzipioarekin bat datorren kontsulta iragazi bidezko sistemak gaitzea ere lagungarriak izan daitezke argitaratzeak ekar ditzakeen arriskuak gutxitzeko.

▪ **Ehiza-lizentziei buruzko datuak lagatzea ehiza federazio bati (CN17-010)**

Ehizako lurralde federazioei ehiza-lizentziei buruzko datuak lagatzea ez da legezkoa. Datuak lagatzeko, ukituen adostasuna beharko da. Ukituek adostasuna adieraziz gero, foru aldundiak komunikatu ahal izango dizkio eskatutako datu pertsonalak federazioari; baina, federazioak, esleituta dituen eginkizunetarako baino ez ditu erabiliko datuak.

▪ **Sail batek diruz lagundutako jarduerak justifikatzeko datu-lagatzea (CN17-011)**

Zilegi da diruz lagundutako jardueretan egon diren pertsonen datu identifikatzaileak komunikatzea, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikulua onartzen duenaren arabera.

▪ **Informazio-batzordeak grabatzea eta hedatzea (CN17-012)**

Informazio-batzordeen saioak grabatu eta hedatu daitezke, hala xedatu dutelako osoko bilkurak gehiengo osoz edo bertako erregelamendu organikoak (Euskal Autonomia Erkidegoan Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 30.3 artikulua).

Informazio-batzordeetako kide diren korporazioko kideek nahitaez onartu behar dute, obligazioa dutelako, euren irudia eta ahotsa tratatzea, nahiz eta adostasunik ez



adierazi. Batzordean nahitaez egon behar duten funtzionarioek ere betebehar hori dute.

Saioan dagoen publikoak, ordea, ez du betebehar hori. Baina, aldezturik azaldu egin beharko zaio publikoari saioa grabatu eta hedatu egingo dutela. Hala ere, eta ahal den neurrian ahalegina egingo da publikoa ez grabatzeko, horrela bete ahal izateko DBLOren 4. artikuluko datuen kalitatearen printzipioa.

Osoko bilkuretako eta informazio batzordeetako kideei eta bertaratzen direnei esan egin behar zaie oso garrantzitsua dela datu pertsonalik ez sartzea grabazioetan, ezinbestekoak ez badira behintzat, DBLOren 4.1 artikuluko xedatutako datuen kalitatearen printzipioa betetzeko.

Gainera, azpimarratu beharrean gaude zuhurtziaz jokatu behar dela DBLOren 7. artikuluko arautzen dituen bereziki babestutako datuak direla eta. Datu horien tratamenduari dagokionez, eta datuok nahitaez tratatu beharra badago, gogora ekarri behar dugu Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 30.4 artikuluan aurreikusitako bidea erabil daitekeela, eta sekretupekoak deklaratu Konstituzioaren 18.1 artikuluko aipatzen duen oinarritzeko eskubidea urra dezaketen gaien gaineko eztabaida eta bozketa; eta grabazioa eten ere egin daitekeela, norberaren intimitatea, familia intimitatea, ohorea edo norberaren irudia kaltetu dezaketen gaiak tratatzen dituzten bitartean, artikuluko horrexek berak xedatzen duenez.

▪ **Kontzeju bateko Administrazio Batzarreko kide batek korporazioko informazioa eskuratzea (CN17-013)**

Planteatutako kasuan, zera gertatu zen: toki korporazioko 2016ko kontuak onartu ziren, eta Administrazio Batzarreko kide batek eskatu zion presidenteari administrazio espediente bati buruzko informazioa; eta, horretarako, espedientean zegoen dokumentazioaren kopia bat eskatu zuen, bereziki, lursail zehatz batean egindako obrei buruzko faktura baten kopia. Informazioa ukatu egin zen, eta Administrazio Batzarreko presidentek adierazi zuen datu pertsonalak babesteko eskubideagatik ukatu zela.

Agentziaren ustez eskatutako informazioa erabat legekoa da, hala xedatzen baitute Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legearen 77. artikuluko eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamendua (AJA) onartu zuen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 14. eta 15. artikuluek, baldin eta informazioa beharrezkoa bada kontrol eginkizuna burutzeko.

Adierazi behar dugu banakako enpresarioei buruzko datuak ez daudela datu pertsonalak babesteari buruzko lege-erregimenaren ezarpen-eremuan (DBLO garatzen duen Erregelamenduaren 2.3 artikulua); eta enpresarioa pertsona juridikoa bada, DBLOk eta Erregelamenduak diotenez, pertsona juridikoari buruzko datu-tratamendua ere ezarpen-eremutik kanpo dago.

Azkenik, gogoan izan behar dugu Gardentasunari buruzko Legeak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak behartzen dituztela administrazio publikoak publiko egitera (publizitate aktiboa) kontratu guztiak, honakoak adieraziz besteak beste:



xedea, iraupena, lizitazioaren eta esleipenaren zenbatekoa, kontratua egiteko erabilitako prozedura eta esleipen-hartzailearen identitatea. Administrazio batzarrak ere betebeharrak bera du.

▪ **Datuak lagatzea azterlan bat egiteko (CN17-014)**

Udal batek azterlan bat egiteko datuak lagatzeko foru aldundi bati, ukituen adostasuna edo lege gaikuntza beharko da.

Azterlana egin ahal bada disoziatutako informazioarekin, hau da, informazioa pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri bati lotzea ezinezkoa den modu batean erabilita, udalak aukera hori baliatu beharko du, eta disoziatutako informazioa lagatzean ez da kaltetuko datuak babesteko oinarrizko eskubidea.

▪ **Adingabeko baten eskolaratze datuak lagatzea Ertzaintzari (CN17-015)**

Adingabeko baten eskolaratze datuak lagatzea poliziari legezkoa da DBLOren 22.2 artikulua araberak

▪ **EHAAn argitaratzea Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea aitortzeko eskabidea egiteko aukera duten langile publikoen zerrenda eta espezialitatea egiaztatzen dutenena (CN17-016)**

Administrazio kontsulta-egileak jakin nahi dituen bi gauzak dira ea datu babesaren arloko araudiarekin bateragarria den EHAAn argitaratzea langile publikoen zerrenda, kontsulta-egileak berehala egikaritu nahi duen administrazio prozedura baten bi faseetako bakoitzean. Prozedura gaitzen duen araua da Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen xedapen gehigarria. Prozeduraren hasierako fasean argitaratu nahi da espezialitatea egiaztatzeko lege eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten langileen zerrenda; eta prozeduraren azken fasean argitaratu nahi da Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea egiaztatu duten langile publikoen zerrenda, hau da, 7/2017 Legearen xedapen gehigarriaren bidez egiaztatu dutenena, hain zuten ere.

Hasiera batean arreta deitzen du eta kontraesana dirudi betekizunak betetzen dituzten funtzionarioei zuzendutako eskaintza banan-banan egin beharrezkoa dela (Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria), baina administrazio kontsulta-egileak nahi duela EHAAn argitaratu langile publiko horien zerrenda, NAN, izen, abizen eta guzti.

Banakako eskaintza aipatzen bada, badirudi izango dela administrazioa bana-banan zuzendu behar zaielako egiaztatze prozesuak ukitutako enplegatu publikoei; eta hori egitea itxura batean erraza da, kontsulta-egileak dioenez, ia langile guztien zerrenda dutelako; eta, gure ustez, administrazio horretan aktiboan daudenak izango dira.

Datu pertsonalak argitaratzea datuen tratamendu bat da; hain zuzen ere, datu lagatzetzat edo datu komunikatuetzat jotzen da, DBLOren 3 i) artikulua ematen duen



definizioaren arabera. Ez da ahaztu behar datu pertsonalak babesteko eskubidea sortu zela informazio pertsonala babestu ahal izateko tratamenduen aurrean; eta aldizkari ofizial batean argitaratzea tratamendu masibo bat da.

DBLOren 11. artikulua xedatzen duenez, datu pertsonalak komunikatu ahal izateko arau orokorrak dira, batetik, lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzenean lotutako helburuak betetzea, eta, bestetik, interesdunen adostasuna. Nahiz eta interesdunaren adostasuna ez izan beharrezkoa, lege batek ematen badu datuak lagatzeko baimena.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak (APEL) arautzen du administrazio egintzen argitalpena; eta 45. eta 46. artikuluek xedatutakoaren arabera, administrazio kontsulta-egileak egin nahi duen argitalpenak ez du lege babesik.

▪ **Herri Kontuen Euskal Epaitegiari datuak lagatzea (CN17-017)**

Badago Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dituen datuak lagatzeko lege babesa, eta ez da behar ukituen adostasunik, baldin eta informazioa funtsezkoa bada lortu nahi den helbururako, eta behar bezala arrazoitutako eskakizuna bada.

▪ **Zerbitzu sozialen plataforma batean dauden datuen tratamendua (CN17-018)**

Hainbat toki erakundek eskatu diote gizarte zerbitzuak kudeatzeko plataforma informatiko baten ardura duen administrazio publiko bati bueltatzeko haien datuak (orain datuak beste formatu batean daude), tratamendu-eragile bati komunikatzeko. Eskatu duten informazioa eta eman zuten informazioa bere bada, ez da datu lagatzetzat joko.

Bestela, adostasuna edo lege gaikuntza beharko da, eta DBLOren 21. artikulua ezarri beharko da egiaztatzen bada informazio pertsonala nahitaezkoa dela administrazio eskatzaileak bere eskumenak baliatzeko.

▪ **Lankidetzak hitzarmena, Araban errepresio frankista ikertzeko (CN17-019)**

Zilegi da udal, foru eta administrazio orokorreko zenbait fitxategitan dagoen informazioa partekatzea, errepresio frankistari buruzko txosten bat egiteko, DBLOren 21. artikulua xedatutakoaren arabera. Unibertsitateak datuak atzitu ditzake, tratamendu-eragilea delako.

▪ **Udal batek hainbat datu lagatzea foru aldundiari datu-base bat eguneratzeko (CN17-022)**

Foru Aldundiaren fitxategi baten datu-basea eguneratzeko udal fitxategietan kontsultak eginez, ukituen adostasuna beharko da, non eta kontaktu datuak ez diren.



Datu-basea hirugarren baten bidez eguneratu behar bada, hirugarrenak tratamendu-eragilea izan behar du, eta DBLOren 12. artikuluko betekizunak bete beharko dira.

▪ **Erroldako datuak lagatzea Aldundiari, azterketa epidemiologiko bat egiteko (CN17-024)**

DBLOren 16.3. artikulua ez du erabateko gaikuntza ematen, administrazio publikoei biztanleen erroldako datu pertsonalak modu masiboan eta indiskriminatuan lagatzeko. Kontrakoa gertatzen da: proportzionaltasuna eskatzen du, eta eskatzaileari agintzen dio nahitaez arrazoitu eta egiaztatu behar duela eskatzen dituen datuak ezinbestekoak direla lortu nahi den helburu zehatz eta jakina lortzeko, kasuz kasu; eta fitxategiaren arduradunari agintzen dio eskabidea ebatzi aurretik behar bezala ponderatzeko.

Udalerri guzti horietako biztanleen datu pertsonalak komunikatzea azterketa epidemiologiko bat egiteko, datu pertsonalak modu indiskriminatuan lagatzea bezala da, eta hori egitea ez da ondo ezkontzen DBLOren 4. artikuluko datuen kalitatearen printzipioarekin. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokor berriak ere jaso du printzipio hori 5.1 c) artikuluan: datuak minimizatzeako printzipioa.

▪ **Ordezkaritza sindikalek Eusko Jaurlaritzako enplegatu publikoen posta elektronikoko korporatiboko helbideak erabiltzea (CN17-026)**

Azaroaren 7ko Konstituzio Auzitegiaren 281/2005 Epaiak onartu egiten du langileen ordezkariak ordezkatuak informatzeko eskubidea dutela, afiliatuak izan ala ez, eta oinarritzko eskubide honen funtsezko alderdi bat dela, *“interes sindikaleko berriak zabaltzea, hau da, sindikatuen eta langileen arteko informazio fluxua, ezen parte hartzearen oinarria delako, ekintza sindikala zentzuz erabiltzea ahalbideratzen duelako eta demokraziaren eta aniztasun sindikalaren garapena ahalbideratzen duelako. Azken finean, askatasun sindikalerako oinarritzko eskubidearen funtsezko osagaia da, hau da, ekintza sindikalaren muina, eta, beraz, oinarritzko eskubidearen funtsezko edukiarena ere bai...”* Hala ere, epai horrek muga subjektibo eta material batzuk ezarri zizkien langileen ordezkariak, langileak informatzeko posta sistema erabiltzeko orduan bete beharrekoak.

Datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren ikuspegitik begiratuta, esan behar da posta elektronikoko helbideak datu pertsonalak direla, DBLOren 3 a) artikuluen arabera.

Sindikatu ordezkariak, Eusko Jaurlaritzak haien esku jartzen dituen posta elektronikoko korporatiboaren helbideak tratatzen dituztenean sindikatu askatasuna egikaritzeko, datu pertsonal horien tratamenduaren arduradun bihurtzen dira; eta, beraz, bete egin behar dituzte datu babesari buruzko araudiak agindutako betebeharrak, printzipioak (kalitatearen printzipioa, adostasuna, datuen segurtasuna eta sekretu gorde beharra) eta segurtasun neurriak.

Zehatz esanda, eta 281/2005 KAEk ezarritakoaren arabera, langileen ordezkariak enpresan lehendik dagoen posta korporatiboaren bidez baliatu dezaketen sindikatu informaziorako eskubidea, bakar-bakarrik baliatu dezakete sindikatu eta lan izaerako



informazioa bidaltzeko. Beraz, langileen sindikatuek ezin izango dituzte erabili beste ezertarako enplegatu publikoen posta elektronikoko helbideak; eta hori bat dator DBLOren 4. artikulua xedatzen duenarekin, hau da, datuen kalitatearen printzipioarekin.

3.3. TXOSTENAK

Atal honetan sartzen ditugu honako hauek:

- 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorretako egitasmoen buruzko derrigorrezko txostenak, 17.1.h) artikulua xedatzen duenaren arabera.
- Nahitaez erantzun beharreko estatistikak finkatzen dituzten lege-xedapen buruzko proiektuen gaineko txostenak, 2/2004 Legearen 17. 1.l) artikulua eta DBEBren Estatutua onartzen duen urriaren 10eko 309/2005 Dekretuaren 5 a) artikulua xedatzen dutenaren arabera.
- Bestelako lege-xedapen eta hitzarmen buruzko txostenak, ebatzeko ea datu pertsonalei buruzko araudiarekin bat datozen.

2017an 5 legezotasun txosten egin dira.

Hona informatu ditugun proiektuen zerrenda:

- Lan eta Justizia Sailari atxikitako datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatu buruzko Agindua aldatzen duen Agindua.
- Osasun Saileko langileen datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen osasun sailburuaren Agindua
- Lehendakartzako eta Emakunde eta Memorian Institutua administrazioko erakunde autonomoen datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen otsailaren 25eko 8/2016 Dekretua aldatzen duen dekretua.
- Urteko Estatistika Programaren Dekretua-2017.
- Etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko dekretua.

3.4. AHOALKULARITZA BILERAK

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak duen izaera proaktiboa eta zerbitzu publikoa izateko asmoa kontuan hartuta, hainbat bilera egin ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait administrazio eta erakunderekin, eta aholkularitza eman diegu, haien eskumen esparruan burutu nahi dituzten jardueren oinarriko eskubideak izan dezaketen eraginaren gainean eta onartu nahi dituzten erregulazioen gainean. Azpimarratu nahi dugu Agentziak egiten duen aholkularitza lana ez dela egiten bakarrik administrazio bakoitzak dituen kezkak argitzeko, datu babesaren kultura zabaltzeko eta hedatzeko konpromisoa betetzeko baizik.

Horrekin lotuta, 2017an Agentziako Aholkularitza Juridiko eta Ikuskaritzak honako bilerak egin ditu:



- Bilera UPV/EHUREkin: Doktore tesia eta ikerketa proiektua.
- Bilera bat Markinezeko Administrazio Batzarrarekin: akten edukia eta akten zabalkundea.
- Bilera bat Izenperekin: Datu pertsonalen tratamendua zerbitzu publikoak ematean.
- Bilera bat Etxebizitza Sailarekin: Babestutako etxebizitzaren esleipenen argitalpenak.
- Bilera bat Hezkuntza Sailarekin: Lanbide Heziketako ikastetxe batean onartutako ikasleen zerrendak modu irekian argitaratzea.
- Bilera bat Osakidetzarekin: Erabiltzaile profilak, trazabilitatea eta baimendutako sarbideak profileko; adoptatutako haurren historia klinikoa eskuratzea; datuen kalitatearen printzipioa eta datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubideak.
- Bilera bat Bilboko Udalarekin: Etxebizitza hutsen inbentarioa sortzea eta bitartekaritza bulego bat abian jartzea jabetza pribatuko etxebizitzak alokatzeko.
- Bilera bat puntuEUS Fundazioarekin .eus domeinuen titularren datuen pribatutasunari buruz.



4. KONTROL EGINKIZUNA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, kontrol eginkizuna burutzeko, datuak babesteko araudia bete egiten dela zaintzeaz gain, euskal administrazio publikoek behar bezala ezartzen dutela ere kontrolatzen du; eta, hala badagokio, administrazio horien arau-hausteak deklaratzeko dituzte, eta isunak ezartzen dizkie administrazio horien kontura tratamendu arduradunaren eginkizunak burutzen dituzten enpresa pribatuei.

Horretaz gain, herritarrek aurkezten dituzten atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak (“AZETA eskubideak” izenez ere ezagunak) babesteko erreklamazioak ebazten ditu.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak handitu egin du pertsonen eskubideen katalogoa, eta betiko AZETA eskubideei beste berri batzuk gehitu dizkie: tratamendua mugatzeko eskubidea eta datuak transferitzeko eskubidea.

Erregelamendu Orokorra ohartu da herritarrek tresnak behar dituztela, baldin eta nahi badute haien datu pertsonalak behar bezala kontrolatu. Horrekin lotuta, ikusten da Agentziak jaso dituen babes eskabideek agerian uzten dutela herritarrek kezkatuta daudela kontrola dela eta.

4.1. ESKUBIDEEN BABESA

2017an zehar Interneten bidez egiten den informazioaren zabalkundea da pertsonen buruhausterik handiena. Eta berretsi egiten da aurreko memorietan adierazitako joera, hau da, herritarren kezka handi bat dela euren datuak ez daitezela betiko hedatu Interneten, eta hori ekiditeko, ahaztuak izateko eskubidea baliatu dezakete. Eskubide hori Erregelamendu Orokorreko 17.2 artikuluan dago araututa.

2017an jaso ditugun erreklamazioen % 75 onetsi egin ditugu, gehienak arrazoi formalak tarteko, berandu hartu dutelako aintzat interesdunek baliatu nahi zuten eskubidea. Guk onetsitako eskabideak direla-eta, esan behar dugu askotan administrazioek aintzat hartzen dituztela eskubideak baliatzeko herritarren eskabideak, herritarrek Agentziarengana jotzen dutenean. Horren gainean gogorarazi behar diegu administrazio publikoei herritarren eskubideak beranduegi aintzat, hartzea herritarren datuak babesteko oinarritzeko eskubidea urratzea dela.

Hona 2017an ebatzitako babes eskeak:

Ezerezteko eskubidea

- **Web-orri batean argitaratutako datuak ezerezteka, hautaketa prozesu baten baita (ET16-007)**

Erreklamazio-egileak 2006ko hautaketa-prozesu batean gaintitu zutenen zerrenda batean zeuden datuak ezerezteko eskubidea baliatu zuen. Datuak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuen web-orrian zeuden argitaratuta.

Administrazioak ezetsi egin zuen hasiera batean egindako ezerezteko eskabidea, baina Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren esku hartzea eta gero, irizpidea aldatu



egin zuen eta erreklamazio egilearen eskubidea babestu. Administrazioak ebatzi zuen bidezkoa zela datuak ezerezte, informazioa ez zelako beharrezkoa. Hala ere, zati batean gauzatu zuen ezerezte, datuak eskuragarri zeudelako administrazio bereko beste URL baten bidez.

Hori dela eta, erreklamazioa onetsi egin zen, eta administrazioari eskatu genion erreklamazio-egilearen datuak behin betiko ezerezteko, eta ezereztu eta gero, jakinarazteko hori erreklamazio-egileari eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoari. Oraindik ez dugu jakinarazpenik jaso.

▪ **Kexa bat izapidetzeko tratatutako adingabe baten osasun datuak ezerezte (ET16-012)**

Erreklamazio-egileak eskatu zuen ezerezteko semearen datu pertsonalak. Datuak administrazio prozedura batean tratatu zituzten, eta hainbeste denbora pasatu eta gero, gehiegizkotzat jo zuen. Datuak tratatu zituzten 2011n aurkeztutako kexa bat izapidetzeko, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak artxibora bidali zuen dokumentazioa, kexa aurkeztu zutenetik bost urtera. Hori erantzun zion Sailak eskatzaileari. Eskatzaileak ulertu zuen eskabidea ezetsi egin ziotela.

Erreklamazioa onetsi egin genuen eta administrazioari eskatu genion informazioa ezerezteko jatorrizko fitxategitik eta artxibo orokorretik. Agentziari ez diote jakinarazi ea agindutako neurriak bete dituzten ala ez.

▪ **Udal batek Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkarian argitaratutako datu pertsonalak ezerezte (ET16-015)**

Erreklamazio-egileak eskatu zion Bilboko Udalari bere datu pertsonalak ezerezteko, uste zuelako beteta zegoela aldizkarian egindako argitalpenaren helburua. Udalak ez zuen ulertu eskatzaileak datuak ezerezteko eskabidea baliatu nahi zuela, nahiz eta Interneten ingurunean izan. Baina, Agentzian aurkeztu zuen erreklamazioa onetsi egin genuen, eta informazioa ezerezteko eta desindexatzeko eskabidea egin genuen. Agentziari ez diote jakinarazi neurririk hartu duten.

▪ **Udaltzaingoak dituen polizia aurrekariak ezerezteko eskabidea (ET16-016)**

Erreklamazio-egileak eskatu zuen genero indarkeriagatik zituen aurrekari batzuk ezerezteko, lehendik ezereztuta zeudelako Justizia Ministerioko erregistroan eta Ertzaintzaren fitxategietan. Bilboko udalak ezetsi egin zuen eskabidea, eta hori arrazoitzeko DBLOren 23.1 artikulua erabili zuen (estatua edo segurtasun publikoa defendatzeko, hirugarrenen eskubide eta askatasunak babesteko edo gauzatzen ari diren ikerketen beharrianetarako arriskuak aintzat hartuta). Agentziak onetsi egin zuen erreklamazioa eta datuak ezerezteko agindu zion, Ertzaintzak eta Justizia Ministerioak ere ez zituelako aintzat hartu inguruabarrak. Agentziari ez diote jakinarazi ea agindutako neurriak bete dituzten ala ez.



▪ **Aldizkari ofizialean argitaratutako zenbait datu pertsonal ezerezteak (ET16-019)**

Erreklamazio-egileak eskatu zuen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako datu pertsonalak ezerezteko, udal batek eskatuta, udaletik jaso ondoren dokumentuak kontsultatzeko aukera murrizteko eskabidea. Erreklamazioa onetsi egin genuen, gure ustez informazioak jada beteta zuelako bere helburua, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu genion murrizteko erreklamazio-egilearen datu pertsonaletarako sarbidea, eta bilatzaileen bidez ez eskuratzeko moduan jartzeko.

▪ **Aldez aurreko betekizunak bete gabe egindako babes eskabidea (ET16-021)**

Erreklamazio egileak eskatu zuen aldizkari ofizialean argitaratutako bere datu pertsonalak ezerezteko. Agentzian aurkeztu zuen babes eskabidearekin batera ez zuen aurkeztu lehendabizi administrazio publikoan aurkeztu beharreko datuak ezerezteko eskabidea aurkeztu izanari buruzko frogagirik, ez eta nortasun agiririk ere. Beraz, prozedura artxibatu egin zen.

▪ **Historia klinikoko datuak ezerezteak (ET17-001)**

Erreklamazio bat aurkeztu zuten Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, erreklamazio-egileari ukatu egin ziotelako bere historia klinikoko datu batzuk ezerezteak, datuak gordetzea komenigarria jotzen zelako.

Hainbat diagnostiko zeudenez, Agentziak eskatu zion Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari erreklamazio-egilearen historia klinikoan bakarrik uzteko diagnostiko bakarra, pazienteari osasun arreta egokia eta aproposa emateko balio duena, eta ez besterik.

▪ **Udal fitxategietan dauden datuak berandu ezerezteak (ET17-007)**

Bilbaoko Udalari datuak ezerezteko eskabide bat aurkeztu zioten, eta Udalak datuak ezereztu zituen, baina, berandu, lege ezarritako epea igaro eta gero, eta Agentzian babes eskabidea hasita zegoela. Herritarraren datuak ezerezteko eskubidea epe kanpo bete zen. Horregatik, Agentziak alderdi formaletik onetsi zuen babes eskabidea eta ez alde materialetik.

▪ **Organismo autonomo batean dauden datuak ezerezteak (ET17-008)**

Pertsona batek erreklamatu zion organismo autonomo bati bere datuak ezerezteko, eta babes eskabidea eskatu zion Datuak Babesteko Euskal Bulegoari. Baina, eskabidea bertan behera utzi zuen eskubidea bete zelako.

Atzipen eskubidea



- **Historia klinikoa eskuratzeko eta egon diren sarbideetarako eskubidea (ET16-013)**

Pertsona batek bere historia klinikoa eta epealdi jakin batean historian egin dituzten sarbideak eskatu zizkion Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari. Ez zioten eskatutako informazioa eman legez ezarritako epean, eta erreklamazioa Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkeztu ostean eman zioten, Bulegoak agindu ondoren.

- **Kontratazio zerrendak kudeatzeko espedienteetan sartzeko eskabidea (ET16-020)**

Pertsona batek eskabide bat aurkeztu zuen kontratazio zerrenda batzuk kudeatzeko espediente batean zeuden datuak eskuratzeko. Horrez gain, eskatu zuen jakitea zein den hasieran adierazi zituen lehentasunak aldatu zituen IP helbidearen titularra. Agentziak eskatu zion Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari erreklamazio-egileari uzteko bere datuak atzitzen. Era berean, adierazi du IP helbidearen titulartasunari buruzko erreklamazioa ez dela sartzen bere eskumenen esparruan.

- ***Historia klinikoa atzitzeko baimena ukatzea arrazoi terapeutikoengatik (ET16-022)***

Pertsona batek eskatu zuen bere historia klinikoa atzitzea, eta eskabidea ukatu egin zioten esanez agintaritza judizial baten bidez eskatu behar dela, eta arrazoi terapeutikoak ere badirela eskubidea ukatzeko. Gure aldetik esan behar dugu atzipen eskubidea erabat pertsonala dela, eta ez dela behar agintaritza judizialik behar eskubidea asebetetzeko.

Bestalde, pazientearen autonomiari buruzko araudiaren arabera, murriztu egin daiteke pazientearen eskubidea bere osasun informazioa eskuratzeko, egiaztatzen bada behar terapeutiko bat dagoela, eta medikuak aukera duela pazientearen informatu gabe aritzeko profesional moduan, pazientearen osasunari kalte handia egin ahal diolako jakitea zein den bere benetako egoera. Baina, medikuak arrazoituta jaso beharko du hori hala dela historia klinikoan, argi adieraziz zergatik ez duen pazientearen informatu; eta medikuak erabaki horren berri eman beharko die senideei edo pazientearekin ahaidetasun edo izatezko harremana duten pertsonen.

Kasu honetan, erreklamazio-egilearen historia klinikoan ez zegoen jasota atzipena ukatzeko interes terapeutikoko arrazoirik, eta esan zuten profesionalen ohar subjektiboak zeudela, eta hori baliatu zuten pazienteak ez zitzaizkion bere datuak.

Azkenik, onetsi egin zen erreklamazioa eta Agentziak esan zion Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari uzteko erreklamazio-egileari bere historia klinikoan sartzen, kalterik egin ezean hirugarrenen eskubideei eta ohar subjektiboari, medikuek oharrak atzitzeko baimenik ematen ez badute.



- **Herriar batek egindako eskabidea bere historia kliniko osorik eskuratzeko, jaio zen egunetik. Data horretan eskatzaileak beste izen eta abizen batzuk zituen, gerora adoptatu egin zutelako (ET17-002)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak ez zuen informaziorik eman, uste zuelako jatorri biologikoari buruzko datuak zituela. Atzipen eskubideak esan nahi du norberari buruzko informazio pertsonala eskuratzeko eskubidea dugula, baina ez hirugarrenena. Hala ere, aukera zegoenez hirugarrenen datuak disoziatzeko, erreklamazioa onetsi egin zen eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari eskatu genion emateko erreklamazio-egileari bere historia klinikoan sartzeko aukera, baina lehenengo hirugarrenen datuak disoziatuta.

- **Historia kliniko atzitzeko eskabidea behin eta berriz egitea (ET17-003)**

Erreklamazio-egilea lau aldiz segidan saiatu zen, baina ez zuen lortu bere historia kliniko eskuratzeko, eta azkenean Agentziaren laguntza eskatu zuen. Ondoren, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak eskabidea ebatzi zuen, eta informazio eman zion, nahiz eta legezko epea aspaldi igaro.

- **Udaltzaingoaren fitxategian dauden datu batzuk atzitzeko eskabidea (ET17-004)**

Informazioa atzitzeko baimena eman zioten hilabeteko legezko epea igaro ostean, nahiz eta atzerapenaren ardura eskatzaileak izan zuen, ez zituelako epe barruan konpondu eskabidea egiteko betebeharreko betekizunak (sinadura eta identifikazioa). Beraz, Agentziak ezetsi egin zuen erreklamazioa.

- **Historia kliniko atzitzeko eskabidea behin eta berriz egitea (ET17-005) eta (ET17-006)**

Sarbide-eskabide bat epe barruan bete ez zenez, eskatzaileak eskabidea berretsi zuen, eta azkenean Agentziaren babesa eskatu zuen, eta orduan lortu zuen bere eskubidea aintzat hartzea, nahiz eta berandu izan. Erreklamazio biak onetsi ziren, egiaztatu zelako epea igaro zela.

- **Udal fitxategietan dauden datu batzuk atzitzea (ET17-011)**

Bilbaoko Udalak atzipen eskabidea onetsi zuen, baina epea aspaldi igarota eta tartean Agentzia sartu zelako. Erreklamazioa onetsi egin zen, epea ez zelako bete.



Zuzentzeko eskubidea

- **Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren fitxategi batzuetan dauden datuak zuzentzea (ET17-009)**

Ezetsi egin zen aurkeztutako babes eskabidea, erreklamazio-egileak ez zuelako behar bezala baliatu datuak zuzentzeko eskubidea Segurtasun Sailaren aurrean. Segurtasun Sailak ukatu egin zion eskabidea, ez zuelako aurkeztu errolda agiria, eta beharrezkoa zen helbidearen datua aldatzeko.

- **Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren fitxategi batzuetan dauden datuak zuzentzea (ET17-014)**

Pertsona batek eskatu zio Segurtasun Sailari datuak zuzentzeko eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoari babesa eskatu zion. Eskabide biak batera egin zituen, eta ez zuen itxaron Segurtasun Sailak eskubideak baliatzeko espedientea izapidetu arte. Babes erreklamazioa ezetsi egin zen.

4.2. AURRETIAZKO JARDUKETAK

Administrazio publiko bati arau-hauste prozedura bat hasi aurretik, DBEBk aurretiazko jarduketa batzuk burutu ditzake, aztertzeko ea gertatutakoa prozedura hasteko modukoak den.

Agentziak ofizioz burutzen ditu aurretiazko jarduerak, bere kabuz erabakita ala salaketa bat jaso duelako.

2017an Agentziak honako aldeez aurreko jarduerak burutu zituen bere ekimenez:

- **Izapideen egoeran sartzeari NANarekin (AP17-001)**

Euskadiko Justizia Administrazioak aukera ematen du bere web-orrian (www.justizia.eus) NANA erabilita kontsultatzeko izapideen egoera, beste datu osagarriarik gabe.

Administrazio publikoen arau-hauste prozedura bat ireki genion ustez DBLOren 9. artikulua urratu zuelako (Datuen segurtasuna).

- **Historia klinikoa bidegabe atzitzea (AP17-002)**

Jarduerak artxibatu egin genituen, ez zegoelako nahikoa oinarriarik arau-hauste prozedura bat hasteko, egin ziren ikerketa jardueretan ez zelako antzeman bidegabeko sarbiderik.

4.3. SALAKETAK

Pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztutako erreklamazioak dira, euskal administrazio edo erakunde publikoek datu pertsonalen babesaren arloko araudia



urratuz egiten dituzten jarduerak direla-eta. Beraz, Legean zehaztutako arau-hausteak dira.

2017an hainbat salaketa ezetsi genituen, pertsona fisikoei buruzkoak eta izaera juridiko pribatuko erakundeei buruzkoak zirelako, eta halakoak DBEBren kontroletik kanpo daudelako. Datuak babesteko Espainiako Agentziara bidali genituen (DN17-001, DN17-007, DN17-011, DN17-017 eta DN17-039).

Gainontzeko salaketak arau-hauste prozedura bihurtu ziren edo artxibatu egin genituen, ez zegoelako arau-hauste prozedura hasteko nahikoa arrazoirik.

4.3.1. Artxibatutako salaketak

- **Kolon eta ondesteko minbizia goiz detektatzeko programako kanpainako datuak agerian uztea (DN16-017)**

Salatu zuten kolon eta ondesteko minbizia goiz detektatzeko programako informazioa bidaltzeko gutun azaletan gutunaren hartzaileari buruzko mediku datuak agertzen zirela.

Salaketa artxibatu egin zen, gutun azalean agertzen zen informazio ikusita, bakar-bakarrik jakin zitekeelako hartzaile 50 eta 69 urte bitarteko herritarren multzokoa zela, eta minbizia goiz detektatzeko programa batean parte hartzeko gonbidapena egin zitzaiola.

- **Historia kliniko bat atzitzea adostasunik gabe (DN16-019)**

Herritar batek Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua salatu zuten osasun arloko langile batzuk baimenik gabe bere historia klinikoan sartu zirelako.

Salaketa artxibatu egin zen, ustezko arau-haustea preskribatuta zegoelako, preskripzioa deklaratzeko legezko epea igarota zegoelako.

- **Gerontologia zentroa batean bideo zaintzako kamerak jartzea (CN16-038)**

Salaketa bat aurkeztu zuten gerontologia zentro bateko kamerek ez zutelako helburua betetzen (erabiltzaileen segurtasuna zaintzea), eta ez zelako proportzionala.

Agentziak artxibatu egin zuen salaketa, uste zuelako, halako gailuak dituzten geletan zeuden pertsonen egoera ikusita, eta kontuan hartuta intimitateari dagokionez, lekuri kaltetuenetan, esate baterako, komunetan ez zutela grabatzen, eta gaez bakarrik aktibatzen direla, esan zitekeela irudien tratamenduek ondo betetzen zutela proportzionaltasunaren printzipioa. Esandakoa hala dela argi utzita, Agentziak adierazi zuen tratamenduen proportzionaltasuna erabat lotuta dagoela kamerak instalatu zirenean zegoen helburuarekin: erabiltzaileen segurtasun eta ongi izatea zaintzea. Ezinezkoa da kamerak erabiltzea beste helburu batzuetarako, adibidez, langileen laneko kontrola egiteko, kontratatutako prestazioak burutzen dituzten ala ez kontrolatzea eta abar.



- **Historia kliniko bat atzitzea adostasunik gabe (DN16-055)**

Pertsona batek salatu zuen bere historia klinikoa modu bidegabean atzitu zuela Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak.

Artxibatu egin zen, ikusi zelako ez zela sarbide bidegaberik egin, frogatu zelako profesionalek egindako atzipenek zer ikusia zutela asistentzia jarduerarekin, eta salatzaileak bazeukalako horren berri.

- **Udal batek gardentasunik gabe jokatzeari hainbat izapide egiteko eman zioten informazioaren tratamendua zela eta (DN16-061)**

Salatu zuten informazioa falta zela udal baten informazio bilketan.

Salaketa artxibatu egin zen, ez zutelako salatzaileak aurkeztutako alegazioei buruzko frogarik aurkeztu, ezta proba zantzurik ere; beraz, ez zen nahikoa arrazoi sendorik ikusi, arau-hauste prozedura bat hasteko modukoa.

- **Langile publiko guztiek atzitu zezaketen fitxategi bat segurtasun neurririk gabe (DN16-065)**

Udal bat salatu zuten datu base irregular bat zegoelako eta udaleko langile guztiek atzitu zezaketelako, ezelako trabarik eta segurtasun neurririk gabe.

Salaketak aipatzen zuen datu baseak honako datuak zituen: izena, abizenak, NAN zenbakia, nazionalitatea eta zein hizkuntza erabili nahi zuten administrazioarekin harremanak izateko.

Salaketa artxibatu egin genuen, egindako ikuskaritza jardueretan egiaztatu zelako hizkuntza aukerari buruzko informazioa borondatezkoa izan zela bai erroldatze izapideak egin zirenean bai datu pertsonalen tratamendua eskatzen duten gainontzeko udal prozeduretan ere.

- **Administrazio batzar bateko iragarki-oholean argitaratzea administrazio batzar bateko zerrenda bat erroldako 18 urtetik gorakoen datuekin (DN16-066)**

Salatu zuten administrazio batzar batek egoitzako horman dagoen iragarki-oholean argitaratu zuela adostasunik gabe herrian erroldatutako 18 urtetik gorako lagunen datuak: izena, abizenak, helbidea eta jaiotze data.

Egiaztatu zen horretarako lege oinarria zegoela.

- **Udal batek sekretu gorde beharra urratzea (DN16-068)**

Pertsona batek salatu zuen udalak ez zuela bete sekretu gorde beharra, salatzailea nor zen esan ziolako, bere adostasunik gabe, udalean berak salatu zuten pertsonari, hain zuzen ere.



Salaketa artxibatu egin zen, salatzaileak ez zuelako berak aurkeztutako alegazioei buruzko frogarik aurkeztu, ezta proba zantzurik ere; beraz, ez zen nahikoa arrazoi sendorik ikusi arau-hauste prozedura bat hasteko modukoa.

▪ **Mankomunitate bateko batzar orokorreko saioetan erabilitako datu pertsonalak (DN17-002)**

Salatu zuten mankomunitate bateko lehendakariak aipatu zuela salatzailea izen eta abizenekin, eta mankomunitateko langilea zela ere bai, eta batzar orokorraren hainbat saiotan egin zuela hori. Salatzaileak adierazi zuen nahita erabili zutela bere izena, profesional moduan bere ospe ona zikintzeko batzar orokorreko kideen aurrean, eta bideoa ikusten duten guztien aurrean.

Salaketa artxibatu egin genuen, Agentziak uste zuelako ez zela urratu datuak babesteko araudia, datu pertsonalak tratatzeko modua ez zelako gehiegizkoa izan. Datu pertsonal hori esanda ematen den informazioak ez dakar kalterik eta ez dio eragiten salatzailearen intimitate pertsonalari (Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 1. artikulua - DBLO). Salatzaileari buruzko aipamenak mankomunitateko batzar nagusiaren saioetako eztabaidetan egin ziren, eta batzar nagusiko kideek egindako galdera batzuei erantzutean aipatu ziren, eta bakar-bakarrik salatzailearen lanpostuko eginkizunei buruz eta langile publikoa delako. Baina, hala ere, datuak babesteko kontrol agintaritzok beti esan dugu ez dela datu pertsonalen tratamendurik egin behar, beharrezkoa ez bada.

▪ **Datuak lagatzea adostasunik gabe (DN14-003)**

Salatzaileak salatu zuen ustez bere datu pertsonalak komunikatu zizkiotela hirugarren bati, adostasunik gabe.

Salaketa artxibatu egin zen espedienteko jarduerak eta salatzaileak aurkeztutako froga dokumentala ikusita, ez zelako egiaztatu behar besteko froga sendorik zegoenik, eta zantzurik ere ez, benetan frogatzen zutenik datu komunikazioa egin zenik. Aitzitik, kontrakoa adierazten zuten, hau da, ez zela komunikaziorik egin.

▪ **Historia kliniko oso bat ondare erantzukizuneko prozedura batean jasotzea (DN17-009)**

Pertsona batek salatu zuen bere historia kliniko osoa jaso zutela berak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurka aurkeztu zuen ondare erantzukizuneko prozedura batean.

Salaketa artxibatu egin genuen, ez zelako frogatu salatzailearen historia kliniko osoa jaso zutenik, beharrezko zatia baino.



- **Baimenik gabeko langile batzuk historia kliniko bat atzitzea (DN17-018)**

Pertsona batek salatu zuen, berak jakin gabe eta baimenik eman gabe, osasun arloko zenbait langile bere historia klinikoan sartu zirela, eta ez zutela zer ikusirik bere patologiarekin eta tratamenduarekin.

Salaketa artxibatu egin genuen, aurkeztu zutenean igarota zegoelako balizko arau-hausteari buruzko preskripzio epea.

- **Segurtasun neurrien falta anbulatorio batean (DN17-023)**

Salatu zuten segurtasun neurrien falta zegoela Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan, dokumentu bat eman zutelako anbulatorioko arrera gunean gutun azalean sartu gabe eta han zeuden guztiak ikusteko moduan.

Artxibatu egin genuen, ez zegoelako salatutako gertakariak frogatzerik.

4.4. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE PROZEDURAK

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta erakunde publikoei irekitzen zaizkien prozedurak dira, uste bada datu pertsonalak babesteari buruzko esparruan arau-haustea izan daitekeen portaeraren bat izan dutela. Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 24. artikulua arautzen ditu, eta bukatzeko bi modu dauden: artxibatzea ala, hala badagokio, arau-haustea deklaratzeko, zuzentzeko neurriak hartzeko eskatuz.

2017an 22 arau-hauste prozedura berri hasi genituen eta 21 prozedura ebatzi genituen guztira. Eraitza honakoa izan zen: sei arau-hauste oso larri, bost larri, zazpi arau-hauste arin eta hiru artxibatu egin genituen.

2017an gehien deklaratu zen arau-haustea datuen kalitatearen printzipioa urratzeagatik izan zen (DBLOren 10. artikulua); eta horren atzetik deklaratu ziren datu pertsonalak babesteko esparruko beste honako printzipio biak urratzeagatik: kalitatearen printzipioa (DBLOren 4. artikulua) eta segurtasunaren printzipioa (DBLOren 9. artikulua).

- **Informazio eskubidea urratzea (PI16-009)**

Salatu zuten Donostiako Udaleko Gizarte-Abegiko udal zentroan ez zitzaizela aldeaz aurretik azaltzen bertan hartzen zituzten pertsonen DBLOren 5. artikuluko eskubideak, eta bertan hartzen zituzten pertsonen fitxak jasotzeko fitxategietan ere ez zegoela segurtasun neurriak.

DBLOren 5. artikuluan ezarritako informaziorako eskubidea urratu zela deklaratu genuen, datuak bildu aurretik ez informatzeagatik; eta hori arau-hauste arina da otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 d) artikuluan xedatutakoaren arabera. Edozelan ere, azpimarratu genuen portaera ez zela hain gaitzesgarria izan, hain zuzen ere, udalak neurri zuzentzaileak hartu zituelako espedienteak ebatzi baino lehen.



Segurtasun neurrien falta zela eta, ezin izan zen arau-haustea frogatu, eta proba zantzurik ere ez zen aurkitu.

- **WhatsApp bidez zabaltzea hauteskunde-mahaiak osatzeko zozketako zerrendak (PI16-015 eta PI16-017 metatua)**

Herritarren artean WhatsApp bidez zabaldu zuten ekainaren 26ko hauteskundeetarako hauteskunde-mahaiak osatzeko lehendakari, kide eta ordezeko karguak betetzeko Vitoria-Gasteizko Udalean egin zuten zozketa eta izendatu zituzten pertsonen zerrendak. Honako datuak zabaldu zituzten: izen-abizenak, barrutia, sekzioa, mahai-kide bakoitzaren helbideari zegokion hauteskunde-eskola eta bertan egokitu zitzaien kargua.

Udalari arau-hauste larri bat eta arau-hauste ari bat deklaratu zitzaizkion DBLOren 9. eta 10. artikulua urratzeagatik (datuen segurtasuna eta sekretu gorde beharra).

Kasu horretan Udalari ez genion eskatu neurri zuzentzaileak hartzeko, lehendik hartu zituztelako eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi ere bai arau-hauste prozesuan zehar.

- **Datuak argitaratzea iragarki-oholean (PI16-016)**

Etxebide salatu zuten hainbat datu pertsonal argitaratzeagatik, tartean datu sentisibleak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren egoitza elektronikoko iragarki-ohol elektronikoan.

DBLOren 11. eta 7. artikulua urratu zirela deklaratu zen, eta beraz, arau haustea egin zela, hainbat datu pertsonal argitaratu zituztelako, legeak baimentzen dituen kasuetatik kanpo. Zehapena ezarri zitzaion otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.4 b) artikuluko arau-hauste oso larria egiteagatik.

Lanbidek ez dizkio DBEBri jakinarazi hartutako neurri zuzentzaileak.

- **Datu pertsonalak argitaratzea web-orri batean (PI16-018)**

Ur Agentzia-Agencia Vasca del Agua (Ura) salatu zuten, hainbat herritarren datuak Uraren web-orria modu irekian argitaratzeagatik. Herritar horiek hainbat alegazio aurkeztu zituzten izapidetze fasean zegoen prozedura batean, hain zuzen ere.

DBLOren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratu zutela deklaratu genuen. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste arina da. Edozelan ere, azpimarratu genuen portaera ez zela hain gaitzesgarria izan, hain zuzen ere, neurri zuzentzaileak hartu zituztelako espedientea ebatzi baino lehen.

- **Bideo zaintzako kamerak jartzea (PI16-019)**

Hondarribiko Udala salatu zuten ekintza bandalikoak egiten dituzten pertsonak identifikatzeko asmoz hainbat bideo kamera jartzeagatik disuasio eta kontrol



helburuarekin radar-kameren gainean. Espedienteari atxikita dagoen argazkian ikus daiteke bide publikoan hartzen diren irudiak radar kameren segurtasuna bermatzeko beharrezkoa baino gehiago direla, bide publiko osoa hartzen dutelako. Udalak beharrezkoa jo izan balu bide publiko osoa edo zati handi bat grabatzea radar-kameren segurtasuna bermatzeko, kamera horien instalazioa izapidetu zuenean, polizia bideo-zaintzako kameratzat hartu behar izan zituen, eta orduan abuztuaren 4ko 4/1997 Kege Organikoaren mende egongo ziren.

Agentziak deklaratu zuen Udalak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1992 Lege Organikoaren 6. artikulua urratu zuela; beraz, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 22.3 c) artikulua larritzat jotzen duen portaera izan zela. Era berean, Udalari agindu genion kamerok kentzeko zeuden tokitik.

- **Sekretu gorde beharra urratzea datu pertsonalak komunikatzeagatik posta elektroniko bidez (PI17-001)**

UPV/EHUKo organo batek posta elektronikoa bat bidali zion salatzaileari lau hartzailerentzako kopia banarekin, eta mezu elektronikoak atxikita zuten salatzailearen aurka jarritako kexa bat. Kasu honetan artxibatu egin zen hasitako arau-hauste prozedura, ezin izan zelako frogatu oinarritzko eskubidea urratu zenik. DBLOren 10. artikuluko sekretu gorde beharrak ez ditu barne hartzen dena delako gaian erantzukizuna duten pertsonak, tratatzen den informazioaren berri izan behar dutelako. Eta egoera horretan zeuden salatzaileari bidali zioten mezu elektronikoaren kopiaren hartzaileak.

Salatzaileak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurritu zuen ebazpena.

- **WhatsApp bidez zabaltzea poliziak atxilotutako pertsona baten fitxa poliziala eta argazkia (PI17-002)**

Salatu zuten pertsona baten fitxa poliziala zabaltzeko zutela. Halako fitxak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren ardurapeko fitxategia eratzen duten aplikazio informatikoetako batean daude.

Arau-hauste bat deklaratu genuen, DBLOren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.4 h) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste oso larria da.

Segurtasun Sailak jakinarazi egin zion DBEBri zein neurri hartu zituen berriro ez urratzeko pertsonen pribatutasunerako oinarritzko eskubidea.

- **Datu pertsonalak ezerezteko betebeharra ez betetzea (PI17-003)**

Salatu zuten hainbat datu tratamendu egin zituztela ordurako ezereztuta egon behar informazioa erabilia; izan ere, administrazioak ebazpen bidez onetsita zuten salatzaileak jadanik aurkeztuta zuten datuak ezerezteko eskubidea.



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 4. artikulua arau-hauste bat deklaratu genion. 2/2004 Legearen 22.3 c) artikulua arabera, arau-haustea oso larria da.

Segurtasun Sailburuordetzak DBEBri jakinarazi dizkio hartutako neurriak.

▪ **Hirugarren baten datuak atzitzea (PI17-004)**

Beka bat eskatzeko izapideak linean egitean, eskatzaileak bere datuak eta seme-alaba adingabearen datuak ikusteaz gaina, hirugarren batenak ere ikusi zituen. Hirugarrenen datuak ikusgarri uzteak zehapena dakar, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 9. artikuluan ezarritako sekretu gorde beharra urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 g) artikulua arabera, arau-haustea larria da.

Hezkuntza Sailak ez dio DBEBri jakinarazi zein neurri zuzentzaile hartu dituen.

▪ **Eskubideak babesteko prozedura bateko Agentziaren ebazpen bat ez betetzea (PI17-005)**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eskatu zion Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari informazio pertsonal jakin bat ezerezteko. Baina ez zuenez agindutakoa egin, datuen titularrak salaketa aurkeztu zuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, eta Bulegoak deklaratu zuen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak arau-hauste oso larria egin zuela, 2/2004 Legearen 22.4 f) artikuluan xedatutakoa, hain zuzen ere. Osakidetzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi zizkion zein neurri hartu zituen halakorik ez gertatzeko gehiago.

▪ **Itunpeko ikastetxe bati datuak lagatzea (PI17-006)**

Salatzaileak kontsulta bat egin zuen Hezkuntzako Ikuskaritza Nagusian bere seme-alaben ikastetxeak kobratzen zituen kuoten gainean.

Hezkuntzako Ikuskaritza Nagusiak salatzailea nor zen esan zion itunpeko ikastetxeko zuzendariari. Agentziak deklaratu zuen Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan ezarritako sekretu gorde beharra urratu zutela. 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua arabera, arau-haustea arina da.

▪ **Ikastetxe batean onartutakoen zerrendan salatzailearen ezgaitasuna argitaratzea linean eta irekian (PI17-008)**

Urrutiko Lanbide Heziketako Institutu baten web-orrian modu irekian argitaratu zituzten 2016-2017 ikasturtean urrutiko modalitate telematikoaren bidez lanbide heziketako prestakuntza zikloak ikasteko behin-behineko eta behin betiko onartuen zerrendak. Zerrenda bietan agertu ziren eskatzaile bakoitzaren izena eta abizenak, NAN zenbakia eta eskatzaileak ezgaitasunen bat zuen ala ez.



Informazio pertsonala argitaratzeko zuhurtzia handia eskatzen da, pribatutasunari kalte handia egin ahal zaiolako, batez ere tartean datu sentisibleak daudenean. Horregatik, kontrol agintaritzek askotan gomendatu dute datuak sarbide murriztuen bidez argitaratzeko, erabiltzaile eta pasahitzen bidez. Datuak modu irekian argitaratu zirenez, esan daiteke bereziki babestutako datuak argitaratu zituztela titularren adostasunik gabe; beraz, DBLOren 11. eta 7.3 artikulua urratu zirela deklaratu genuen, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.4.b) artikulua arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Hezkuntza Sailak ez dio DBEBri jakinarazi zein neurri zuzentzaile hartu dituen.

▪ **Komunikabide batean argitaratu zuten udal espediente bateko informazioa (PI17-009)**

Salatu zuten komunikabide digital batek argitaratu zuen berri batean Erandioko Udaleko administrazio espediente batean zenbait alegazio egin zituen pertsonaren identitatea argitaratu zutela.

Arau-hauste bat deklaratu genion Udalari, DBLOren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste arina da.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurritu zuten arau-haustea.

▪ **Udal baten web-orrian argitaratzea erakundeko plantilla organikoaren zerrenda izenduna (PI17-010)**

Ermuko Udalak modu irekian argitaratu zituen udal plantillako langileen datu identifikatiboak. Eta lehendik ere bazuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren arau-hauste deklarazio bat, auzi-bidean dagoena.

Kasu honetan ere Agentziak erabaki zuen ez zegoela datu tratamendu hori egiteko lege-oinarririk, eta, beraz, deklaratu zuen Udalak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1992 Lege Organikoaren 6.1. artikulua urratu zuela; beraz, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 22.4 f) artikulua oso larritzat jotzen duen portaera izan zela.

Gainera, Agentziak eskatu zion Udalari berehala behin betiko kentzeko web-orritik modu irekian argitaratu zuen informazioa, udaltzainak eta udaleko enplegatu publikoak identifikatzen zituena, horiek ez zutelako modu librean adostasunik adierazi informazioa udal web orrian argitaratzeko; eta bakar-bakarrik argitaratzeko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak xedatzen duen informazioa.

Ermuko Udalak ebazpen hori ere Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurritu zuen.



- **Salatzailearen identitatea adieraztea jakinarazpen egintza bat egitean (PI17-011)**

Barakaldoko Udalak, eraikin bateko jabeen erkidegoko presidenteari jakinarazpen bat egin zion, udal ikuskatzaileari lagatzeko bertan sartzen, eta izen-abizen eta guzti identifikatu zuen udaletxean salaketa aurkeztu zuen pertsona. Eta salatzailea nor zen esan zuen, nahiz eta salatzaileak berariaz eta idatziz eskatu zuen bere datu pertsonalekin konfidentziasunez jokatzeko.

Agentziak uste du salatzailearen datu pertsonalak jakitea ez zela beharrezkoa eta garrantzizkoa jabeen erkidegoko presidentearentzat, udal ikuskaritza berdin-berdin egin behar zelako, datu pertsonalak esan beharrik gabe. Udalari arau-hauste bat deklaratu genion, DBLOren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste arina da.

- **Udal web-orri batean kargu politikoen gehiegizko datu pertsonalak argitaratzea (PI17-012)**

Hernaniko Udalak irekian argitaratu zituen bere web-orrian udaleko ordezkari politiko kargudunen ondare-ondasunen eta jardueren aitopenenak. Honako datu pertsonalak ageri ziren besteak beste: udal ordezkari bakoitzaren NAN zenbakia, sinadura, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoko pertsona.

Udalari zehapen bat ezarri genion arau-hauste larri bat egiteagatik, DBLOren 4.1 artikuluan xedatutako datuen kalitateari buruzko printzipioa urratu zuelako, gehiegizko datuak argitaratu zituelako gardentasunaren helburua lortzeko.

Hala ere, aitortu behar da jokabidea gaitzesteko arrazoi gutxiago dagoela, Udalak berehala kendu zuelako informazioa, kaltea ahalik eta txikiena izan zedin.

- **DBEBren ebazpen bat ez betetzea (PI17-013)**

Agentziak lehendik ere ezarrita zion zehapen bat Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari portaera honenengatik, hau da, hainbat dokumentu klinikotan (ohiko analisiak, erradiologiako bolantea, Errehabilitazio Zerbitzurako kontsultarteko dokumentuak...) salatzaileari buruzko gehiegizko osasun datuak jartzeagatik, eta ez izateagatik beharrezkoak eta DBLOren 4. artikuluko datuen kalitateari buruzko printzipioa urratzeagatik.

Zehapen ebazpen horrek agindu zion Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari neurriak hartzeko prozedura horretan aipatzen ziren bezalako egoerarik ez gertatzeko berriro, eta hartutako neurriak jakinarazteko hilabeteko epean DBEBri.

Ebazpena ez betetzeagatik, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari 2/2004 Legearen 22.4 f) artikuluko arau-hauste oso larria deklaratu genion, ez zuelako eten datu pertsonalen tratamendu bidegabea, eta lehendik ere agindu bera jasota zuelako.



▪ **Errekurtso-egileen datuak agerian uztea (PI17-014)**

Lan poltsa bat osatzeko deialdi batean Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoko Zuzendaritzak bildu egin zituen hainbat hautagaik asmoi berarekin aurkeztutako errekurtsoak.

Bildutako errekurtsoei buruzko ebazpena banan-banan jakinarazi zitzaion errekurtso-egile bakoitzari, baina eranskin bat zeukan atxikita gainontzeko errekurtso-egileen identitatearekin.

Zehapena ezarri zitzaion arau-hauste arin bat egiteagatik, DBLOren 10. artikuluko sekretu gorde beharra urratzeagatik.



5. EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA

5.1. INFORMAZIOAREN ITURBURUA


Erabilitako datuak Fitxategien Erregistroaren datu-basean dute jatorria. Erregistroan DBEBn deklaraturako inskripzio guztiak daude, 2004an Erregistroa sortu zenetik gaur arte. Era berean, AEPDren Erregistroan 1994tik 2004ra arte egon diren mugimenduak ere jaso ditugu, bilakaera historikoa ikusteko.

Eranskinen (“Datu Pertsonalak Babesteko Erregistroaren Zifrak”) zenbait koadro daude ikusgai, 2017an izapidetutako deklarazioei buruzko informazio zehatzarekin.

5.2. IZAPIDETUTAKO INSKRIPZIOAK

2017an zehar 608 inskripzio eskabide izapidetu ditugu Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan. Fitxategiak sortzeko 158 eskabide (% 26), aldatzeko 362 eskabide (% 60) eta ezabatzeko 88 eskabide (% 14). 2017aren buruan Datuak Babesteko Erregistroan guztira 8.854 fitxategi aktibo zeuden (ikusi “Erregistroaren Zifrak” eranskinen C.1 koadroa).


Begiratzen badugu zenbat deklarazio egin zituzten hil bakoitzean 2017an, kopuruak desberdinak dira hil bakoitzeko. Hileko batez beste 51 deklarazio egin dituzte, eta ikusten da ekainean eta uztailean batez bestekoaren goitik ibili dela deklarazioen kopurua: 100 mugimendu baino gehiago. Otsailean, apirilean, irailean eta azaroan kontrakoa gertatu zen, deklarazio gutxi egin zirelako (ikusi C.3 koadroa).





5.3. ERREGISTROAREN GARAPEN HISTORIKOA

Ondoko grafikoan ikus daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko titulartasun publikoko fitxategi kopuruaren bilakaera historikoa:



2004ra arte egindako inskripzioak Datuak Babesteko Espainiako Agentzian egindakoak dira. 2004az geroztik egindako inskripzioak, ordea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egin ditu.

Grafikoa ikusita, hiru joera nabarmentzen dira, beste hainbeste epealditan mantendu direnak:

1. Esate baterako, hasierako aldian, hau da, 1994tik 2004ra bitartean, inskripzio gehienak AEPDren Erregistroaren funtzionamenduaren lehenengo urteetan egin ziren, eta urteko hazkundera oso neurritsua izan zen.
2. 2004an DBEB eratu zen, eta harrez geroztik urtero hazkunde iraunkorra eta oso nabarmena izan da, 2013 arte.
3. 2013tik aurrera hazkundea moteldu egin da, eta grafikoaren hazkunde-kurba berdinduz doala ikusten da.

Joera horiek aztertzeko, adierazle berri edo tasa berri batzuk sar daitezke, demografiaren esparruan erabili ohi dituzten adierazleen antzekoak:


- *Sortze tasa*: alden batez bestekoa (sortutako fitxategiak) kontuan hartutako epealdiko (urtea) fitxategi aktiboekin alderatuta.
- *Aldatze tasa*: aldatutako fitxategien batez bestekoa kontuan hartutako epealdi hasierako (urtea) fitxategi aktiboen kopuruarekin alderatuta.
- *Hazkunde tasa*: fitxategien batez besteko garbia (sortutakoak ken ezabatutakoak) kontuan hartutako epealdi hasierako (urtea) fitxategi aktiboen kopuruarekin alderatuta.

Adierazle horiek azken urteotako joerak sailkatzeko lagungarriak dira:



Urtea	Inskripzioak			Mugim. guztira	Urteko saldoa	Fitxat. guztira	Tasak		
	Sortzea	Aldatzea	Ezabat.				Sortzea	Aldatzea	Hazkundera
2017	158	362	88	608	70	8.854	% 1,8	% 4,1	% 0,8
2016	231	264	265	760	-34	8.764	% 2,6	% 3,0	% -0,4
2015	331	310	195	836	136	8.818	% 3,8	% 3,5	% 1,6
2014	415	284	249	948	166	8.682	% 4,8	% 3,3	% 1,9
2013	801	350	156	1.307	645	8.516	% 9,8	% 4,3	% 7,9
2012	896	652	244	1.792	652	7.871	% 11,9	% 8,6	% 8,6

Zifra horiek kontuan hartu eta ateratzen diren tasen bilakaera modu grafikoan azalduta, ikusten dira DBEB 2004an sortu zenetik egon diren joerak:



Fitxategien sortze tasak behera egin du urtez urte: hasieran % 30ekoa zen eta % 5ekoa baino tasa txikiagoa izatera heldu da 2014az geroztik. Datu horrek adierazten duena da fitxategien arduradunak diren organismoen egoera "egonkorra" dela gaur egun, gehienek erregularizatu dituztelako ia fitxategi guztiak, eta fitxategi berriak sortzeko premia ere jaitsi egin delako.

Eta hori hala dela erakusten du hazkunde tasak. Hazkunde tasak fitxategien saldo gordina du kontua (sortutakoak ken ezabatutakoak), eta ikusten da % 5,0tik beherako joerari eusten diola. Gainera, estreinakoz, 2016an negatiboa izan zen. Termino demografikoekin alderatuko bagenu, "hazkunde begetatiboa" duela esango genuke.

Edozelan ere, aldatze tasa beti egon da hazkunde tasaren azpitik, azken urteetan izan ezik, goitik egon delako. Pentsatzekoa da horixe izango dela egoera aurrerantzean, eta aldatze tasa izango dela erregistroaren jardueraren daturik adierazgarriena.

5.4. ERAKUNDE DEKLARATZAILEAK


Fitxategi bakoitzaren deklarazioan zehatz agertzen da jasota zein den fitxategiaren arduraduna ("administrazio organo" zehatza jasoz), baina ustez egokiagoa da horiek multzokatzea, erakunde deklaratzailer nagusia kontuan hartuta, hau da, barruko egitura organiko zehatza zein den alde batera utzita. Beraz, erakundeak sailkatzeko,



IFZ hartu da kontuan, desberdina dutelako, Eusko Jaurlaritzaren kasuan izan ezik, kasu horretan sail bakoitza organo deklaratzailer nagusitzat jotzen delako.


Irizpide horren arabera, deklaratzailer nagusien kopurua 457 da, eta fitxategiaren arduradunak 1.347 dira.

Datu horiek 2016ekoekin alderatuz gero, 3 organismo deklaratzailer nagusi gehiago daude (ikusi C.8 koadroa), eta 52 fitxategi arduradun gehiago daude (ikusi C.6 koadroa).



Toki administrazioa baino ez badugu aztertzen (ikusi C.9 koadroa), 322 Erakunde Nagusi daude. Kopuru hori udalen kopurua baino handiagoa da (251). Eta hori gertatu da udalerrri batzuetan erakunde autonomiadunak eta zuzenbide publikoko beste erakunde batzuk daudelako.


Organismo deklaratzailer tipologiari erreparatuz gero, 2017an toki administrazioak izan dira aktiboenak eta mugimenduen % 50 egin dituzte (306 mugimendu). Eusko Jaurlaritzak eta bere menpeko organismoek (eta horiei atxikitako edo menpeko erakundeek) antzeko jardura izan dute, % 20 baino handiagoa (ikusi xehetasunak C.4 koadroan).



Kontrara gertatu da udalez gaindiko erakundearen jarduerarekin, 2017an oso txikia izan baita; eta erakunde autonomikoek eta toki erakunde txikiek ez dute ezer egin.

5.5. INSKRIBATUTAKO FITXATEGI AKTIBOAK

2017an 8.854 fitxategi aktibo daude Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan. Hurrengo grafikoan ikus daiteke bakoitzaren “antzinakotasuna” edo fitxategi horien banaketa denboran zehar, hau da, fitxategi bakoitza zein urtetan deklaratu zen ikus daiteke grafikoan:



5.6. INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN BANAKETA, ERAKUNDEEN ARABERA

Inskribatuta dauden 8.854 fitxategietatik gehienak tokiko administrazioenak dira: guztira 6.695 fitxategi. Guztiaren % 73 dira. 2016an zehar ere udalak izan dira, balio absolutuen arabera, mugimendu gehien egin dituztenak, 54 fitxategi gehiagoko saldo garbiarekin (ikusi C.10 koadroa).


Batez besteko igoera handiena gertatu da “Bestelako erakundeak” ataleko erakundeek deklaraturako fitxategi kopuruan (% 2,4); 207 ziren eta orain 212 dira inskribaturako fitxategiak guztira. Foru administrazioan batez besteko igoera % 2,1ekoa izan da; 426 baino gehiago izan dira inskribaturako fitxategiak (ikusi xehetasuna C.13 koadroan).

5.7. INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN SEGURTASUN MAILAK

Jakin nahi bada zein den zenbait organismok datu babesari eskaintzen dioten dedikazioa, kontuan hartu beharreko adierazle bat da inskribaturako zenbat fitxategik ez duten esleituta segurtasun mailarik (ikusi C.19 koadroa).

2017aren bukaeran 262 fitxategi zeuden segurtasun maila deklaratu gabe. Era horretako fitxategien kopurua % 1,9 gutxitu da 2016ko kopuruarekin alderatuta (5 fitxategi gutxiago). 262 fitxategi horietatik 254 udaletako fitxategiak dira, eta 8 bakarrik dira foru aldundietako organismoetakoak.

Hurrengo grafikoan ikus daiteke zein den inskribatuta dauden fitxategien segurtasun maila eta noiz inskribatu zen lehen aldiz fitxategia.




Ikusten da segurtasun mailarik ez duten fitxategiak 1994 eta 1997 urteetan sortu ziren fitxategien multzo batekoak direla. Sortu zirenetik ez dute aldaketarik izan.

5.8. WEB ORRIAREN ERABILERAREN ESTATISTIKAK

2011az geroztik “Google Analytics” sistema erabiltzen ari gara web orriaren erabilera neurtzeko.

Lehenengo grafikoan ikusten da zenbat bisita izan zituen web orriak hilean, eta erabiltzaileek web gunera heltzeko zenbat banakako saio egin zituzten adierazten du. Azken hiru urteetako datuak daude.




Ikus daiteke batez beste 4.000 bisita dituela hilean DBEBren web orriak, eta kopurua jaitسي egiten dela udan. 2012ko urrian iguera nabarmen bat antzematen da, eta horren arrazoia da sare sozialei buruzko bideo batzuk argitaratu zirela.

Bigarren grafikoak erakusten du zenbat orri ikusi dituzten hilean, eta adierazten du web guneko orriak zenbat aldiz aurkeztu diren edo deskargatu diren. Bata bestearen gainean jarritako grafiko baten bidez islatu dugu informazio hori. Grafikoan oso argi



ikus daiteke hilez hileko joera, eta urtez urte izandako bilakaerak alderatu daitezke horrela.





6. PRIBATUTASUNAREN BALIOAREN ETA AGENTZIAREN JARDUEREN ZABALKUNDEA

6.1. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA KOMUNIKABIDEETAN ETA INTERNETEN

6.1.1. Prentsa idatzia

Data	Izenburua	Komunikabidea
2017/01/24	"Datuak babesteko ordezkari enpresetara heldu behar da".	Expansión
2017/01/27	Josu Erkorekak eta Margarita Uriak "Datuak Babesteko Sariak" banatu dituzte.	Noticias Press
2017/01/27	Ertzaintza saritu dute sare sozialen arriskuen aurrean prebenitzeagatik.	Deia, Noticias de Bizkaia
2017/01/27	Espedientea ireki diote Ermuari langileen datuak argitaratzeagatik udal webean.	Deia
2017/01/27	Josu Erkorekak eta Margarita Uriak "Datuak Babesteko Sariak" banatu dituzte.	Bilbao24horas
2017/01/28	Euskal biztanleen % 43k dio oso arduratuta dagoela bere datu pertsonalen babesa dela eta.	Deia
2017/02/04	"Kamerek ez dituzte krimenak argitzen, epaia itxaron behar da".	Deia
2017/02/05	Ermuko Udalak errekurritu egingo du DBEBren ebazpena, langile publikoen datuak argitaratzeagatik zehapena ezartzen diona.	La Vanguardia
2017/02/05	Ermuko Udalak errekurritu egingo du DBEBren ebazpena, langile publikoen datuak argitaratzeagatik zehapena ezartzen diona.	20minutos.es
2017/02/20	Datuak babestea, enpresaren lehiakortasuna handitzen du.	La Razón
2017/03/03	DBEBk hiru gida argitaratu ditu datu-babesa EBko legedi berrira egokitzeko.	Noticias Press
2017/03/03	DBEBk hiru gida argitaratu ditu datu-babesa EBko legedi berrira egokitzeko.	Bilbao24horas
2017/03/03	Datuen erabilera zuzena egiteko jarraibideak.	Diario Vasco



Data	Izenburua	Komunikabidea
2017/03/03	Eusko Jaurlaritzak 12.000 euroko isuna ezarriko die Gardentasunari buruzko Legea betetzen ez dutenei.	Diario Vasco
2017/05/10	Babes ezazue jakintzaren kutxa gotorra!	Deia
2017/05/30	"Ramsonwarea", protagonista Nextsecuren.	+innovación
2017/06/26	Informazio batzordeak grabatu egin ahal izango dira uztailetik aurrera: Datuak Babesteko Euskal Bulegoak Santurtzi Sí Se Pueden alde egin du grabazioen aferan.	Ensanturtzi.com
2017/07/02	Europar interesak dituzten multinazionalen nahitaez bete beharko dute Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra	Confilegal
2017/07/06	Datuak Babesteko Agentziak baimena eman du Santurtziko informazio batzordeak grabatzeko.	ABC
2017/07/06	Zuzenbidea eta berrikuntza teknologikoa pribatutasunari buruzko Europako esparru berrian.	Lawyer Press
2017/07/21	Gorenak bertan behera utzi du Osakidetzaaren datu babesari buruzko errekurtsioa	Redacción médica
2017/10/23	"Ezin da eroldako informaziorik laga"	Diario Vasco
2017/10/23	Margarita Uria (Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria): «Datuak negozioa izan daitezke, eta askotan doan uzten ditugu».	Diario Vasco
2017/12/05	Datuak Babesteko Euskal Bulegoak orientabideak eman dizkie ETE-Enpresa ertain eta txikiei datu pertsonalen baseen tratamenduen gainean	Eldiario.es
2017/12/05	Datuak Babesteko Euskal Bulegoak orientabideak eman dizkie ETE-Enpresa ertain eta txikiei datu pertsonalen baseen tratamenduen gainean	Europa Press
2017/12/05	Datuak Babesteko Euskal Bulegoak orientabideak eman dizkie ETE-Enpresa ertain eta txikiei datu pertsonalen baseen tratamenduen gainean	20minutos.es
2017/12/05	Datuak Babesteko Euskal Bulegoak orientabideak eman dizkie ETE-Enpresa ertain eta txikiei datu pertsonalen baseen tratamenduen gainean	La Vanguardia



Data	Izenburua	Komunikabidea
2017/12/05	Datuak Babesteko Euskal Bulegoak orientabideak eman dizkie ETE-Enpresa ertain eta txikiei datu pertsonalen baseen tratamenduen gainean	EcoDiario.es

6.1.2. Aldizkariak

Data	Izenburua	Komunikabidea
2017/02/01	Datuak babesteko Europako Erregelamendua.	Agerkaria. Boletín del Colegio de Abogados de Bizkaia, 257 (otsaila-febrero 2017)
2017/07/20	Gorenak ez du onartu EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren aurkako Osakidetzaren errekurtsioa, Medikuen Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak salatu zuen datu babesari buruzko arau-hauste zela eta.	Médicos y pacientes

6.1.3. Irratia eta telebista

Data	Izenburua	Komunikabidea
2017/01/27	Elkarrietzeta DBEBren zuzendari Margarita Uriari, DBEBren Sarien banaketaren gainean.	Onda Vasca
2017/01/27	Datuak Babesteko Europako Eguna gertutik [elkarrietzeta DBEBren zuzendari Margarita Uriari]	Radio Vitoria
2017/02/01	Datuak Babesteko Euskal Bulegoak abokatuen elkargoa saritu du. [Elkarrietzeta DBEBren zuzendari Margarita Uriari].	Onda Vasca
2017/02/02	Datuak Babesteko Euskal Bulegoak abokatuen elkargoa saritu du.	Onda Vasca
2017/09/12	Elkarrietzeta DBEBren zuzendari Margarita Uriari.	EITB
2017/12/20	Nola babes dezakegu gure pribatutasuna Interneten? [Elkarrietzeta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendari Margarita Uriari].	Radio Vitoria



6.1.4. Blogak eta web orriak

Data	Izenburua	Komunikabidea
2017/01/27	Euskal biztanleen % 43k dio oso arduraduta dagoela bere datu pertsonalen babesa dela eta	Irekia (Gobierno Vasco-Eusko Jurlaritzza)
2017/01/27	Josu Erkorekak eta Margarita Uriak "Datuak Babesteko Sariak" banatu dituzte.	Irekia (Gobierno Vasco-Eusko Jurlaritzza)
2017/02/13	Idatzizko erantzuna jasotzeko galdera: Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako datu babesari buruzko txostena dela eta.	Zabalik (Eusko Legebiltzarra - Parlamento Vasco)
2017/02/16	DBEBk euskaraz ere argitaratu du datuak babesteko Erregelamendu Orokorren artikulatua.	Irekia (Gobierno Vasco-Eusko Jurlaritzza)
2017/03/03	DBEBk hiru gida argitaratu ditu datu-babesa EBko legedi berrira egokitzeke.	Irekia (Gobierno Vasco-Eusko Jurlaritzza)
2017/07/04	Pribatuaren lan taldeak Erregelamendu Orokorren buruzkoak.	Pribatua bloga (Pribatua (Pribatutasun eta Informazio Segurtasuneko Euskal Elkarteak)



7. EZAGUTZA TRUKATZEKO ETA PRESTAKUNTZAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA

7.1. BILERA AIPAGARRIAK:

- DBEBren zuzendariak eta hainbat kidek erakunde bilera bat izan zuten Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza diputatuarekin, urtarrilaren 12an, Agentziaren egoitzan.
- DBEBren zuzendariak eta Lege-aholkularitzako hainbat kidek Datuak Babesteko Espainiako Agentziak sortu zuen Datuak Babesteko Erregelamendu berriaren ezarpenari buruzko lan taldean hartu zuten parte urtarrilaren 17an.
- DBEBren zuzendariak eta Lege-aholkularitzako hainbat kidek DBLOren proiektuari buruzko Kodegintzarako Batzorde Nagusian hartu zuten parte otsailaren 6an eta martxoaren 8an, Madrilan.
- DBEBren zuzendaria eta Arartekoa bildu ziren otsailaren 15ean Arartekoaren egoitzan.
- DBEBren zuzendaria eta Lege Aholkularitzako zenbait kide Bilboko Udaleko Etxebizitzako zenbait arduradunekin bildu ziren apirilaren 25ean Agentziaren egoitzan.
- DBEBren zuzendaria eta Agentziako zenbait kide Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko zenbait arduradun politiko eta teknikorekin bildu ziren maiatzaren 11n.
- DBEBko zenbait kidek datuak babesteko ordezkariak egiaztatzeke ziurtapen eskemari buruzko bilera batean hatu zuten parte maiatzaren 17an, Madrilan.
- Bilera bat egin zen Eusko Legebiltzarreko legelari nagusiarekin eta Legebiltzarreko beste zenbait legelariarekin, Erregelamendu Orokorren berrinkuntzak aztertzeke, urriaren 4an.
- Bilera bat egin zuten DBEBko zenbait kidek eta IVA Pek, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren buruzko prestakuntza ikastaroak antolatzeke, urriaren 6an.
- Bilera bat Administrazioke eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordetzarekin, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren buruz, urriaren 6an.

7.2. AEPDREN KONTSEILU AHOLKU-EMALEA

- DBEBren zuzendariak AEPDren Kontseilu Aholku-emailearen kidea denez, Kontseilu Aholku-emailearen urtarrilaren 16ke eta uztailaren 20ke bileretan egon zen.

7.3. EKITALDIAK

- DBEBren VI. Sarien banaketa ekitaldia urtarrilaren 27an Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren egoitzan.



- Otsailaren 2a. Bizkaiko Abokatuen Elkargoko jardunaldi batean parte hartzea, Erregelamendu Orokorren eraginari buruz.
- SEIS elkartearen foroan parte hartzea otsailaren 22an eta 23an Sevillan.
- DBEBren zuzendariaren parte hartzea "Datu babesari buruzko betebeharrak berriak administrazio publikoetan" mintegian, Socinfo fundazioak antolatuta, maiatzaren 18an Madrilen.
